


ERRASATE



GAIZKI
PORTATU
ZARELA KO!!

Gabonak



DEFENTSARIK ONENA ...



... BATASUNA

GANBARAK ZURE INTERESAK BABESTEN DITU

Bada zure interesak babesteko eta zeure jabetzak eragindako arazoak aurrikusteko eta konpontzeko era xume bezain egokia:

JABETZA HIRITARREKO GANBARA

Gutxien uste duzunean sortzen direlako arazoak, egunera itzazu kuoten ordainketak. Honela, jabe zaren partetik GANBARAK talde-interesak babesteko dizkizu edozein administrazioren aurrean eta zerga, kontratu-erredakzio, eskakizun, jabe-kidetzak-estatutu, errenta-arau, legedi, balioztapen eta beste hainbat gairen inguruko argibideak eskainiko dizkizu, eta guzti hau, **kostu gutxi izanik asko balio duen kuota baten bitartez.**



Zure Ganbara Gipuzkoan

GIPUZKOAKO JABETZA HIRITARREKO GANBARA OFIZIALA

DONOSTIA - Bilbo Plaza, 3 behea. Tfnoa. 46 41 33 • EIBAR - Egiguren, 12-14 behea. Tfnoa. 11 75 54 • IRUN - Berrotaran, 7 - 1. Tfnoa. 62 09 91.
ARRASATE - AHOLKULARITZA JURIDIKOA - AURRETIKO TXANDA. Tfnoa. 79 98 86

Astelehenetan itxita

ZUHAITZ

jatetxea!



**BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!**

Tfno: 71 16 98

Zuri
Arribetak

VE ECUADOR

Bidaiak


Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jauriritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Muxuak harrikaden ordez

O hizkoa izaten da urte sasoi hone-
tan iragandakoeekin harrikadaka
hastea. Eta asmo sendo horrekin
egin dut planto ordenagailuaren aurrean.
Azkenean baina -ezer gutxi gara- festa egun
hauetako xarma eta goxotasunak ohi mo-
duan xaramelatu naute. Izan ere, nola ihes
egin jadanik herriko harresiak gainditu di-
tuen aingeru, argitxo eta bake giro zerutiar
giro horri? Harrikadaka hasi gura eta, giroak
jota, musuka bukatuko al dut, bada? Fraile
ikastetxean ikasi nuen gaztetan. Horra hor
azalpena. Alabaina, ze letxe, zertarako ha-
rrikadak, inguratzen nauen zorientasunean
zorientsu banaiz? Irakurle, arren, sinets ie-
zadazu, zorientsu ez bazara abia zaitez agu-
do Eroskira, nik neuk han erosi baintuen,
merke gainera, horrela utzi nauten zorienta-
sun poltsakada biak.

Amaitzeaz dagoen hau bixamona galan-
taz hasi nintzen, izan dira ondorengo hilabe-
teetan bixamona kentzeko moduko gertaki-
zunik. Euskaldun pelma horietako batzuk,
erre ke erre, duela hamar urte munduratu
zirela gogoratu digute behin eta berriz. Es-
kerrak, eta eskerrik asko. Gaz-
te batzuk, azierto larregi
barik susmatzen dut,
gazteok bizitzeko
gure aterpe propioa
maite dugula go-
gorarazi ziguten.
Beste batzuk,
hauek inongo
azierto barik, udal
putre bako San
Juanak gura zituz-
ten, gazte girokoak
baino gaztetxetsue-
giak iruditzen zait.

Aste batzuk lehenxeago, ordeza, abertza-
legoak susto ederra hartu zuen gogora ekarri
nahiko ez nukeen ekainaren 6 batean: "es-
painiar gaiztoak Murutik behera zetozten
Arrasate hartu guran eta arrasatear batzuk -
baina kontuz, arrasatearrak! Ez ahaztu-
laguntza eskaini zieten» Gajuak gu, euskal
herritar eta euskaldunok.

Ezin ahaztu Olentzerok utzi digun au-
tobide, autopista edo dena delako proiektu
hori. Aurten plazaratu zaigu herrira eta orain-
dik burrundara gutxi atera badu ere, izango
da zaratarik. Seguru. Autopista aipatu ahala
bapatean krisi ekonomikoa datorkit burura,
izan ere banaezinak diren elementuak dira.
Krisia eta autopista. Bai, bistan da, oso berba
antzekoak dira eta lotu-lotuak daude. Atlan-
tiar ardatzarekin bat egiteko ezinbestekoa
dugu Maltzagatik abiatzea, baina bergaratar
batek zioen legez, edozelako krisitik aterat-
zeko Maltzagaraino elkarrekin abiatzea ga-
rrantzitsuagoa dela uste dut. Urte bukaerak
zerbait garbi utzi badigu horixe izan da.

Harririk bota ez eta gainera muxuka amai-
tu behar (eskerrak maite ditudan musuak).
Imagina litekeen ongi etorri muxurik handi
eta goxoena Krisentzat. Imagina li-
tekeen elkartasun muxurik
handiena barruan
geraketan diren
gainerakoentzat.
Gure etxean, beste
etxe askotan legez,
leku bat hutsik
izango da aurten
ere. Eskerrak zorien-
tasun poltsakada eder bat
erosi nuela. Izan onak.

XABIER LETONA "ATAXI"



Leire Zubikarai

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Teré Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko marrazkia: Haritz Kortabarria



Maalako
arrabala, 29

Ttuntun
erritmoarekin

AURRERA!!

ARRABALA

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferreñas, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

••••

Eskerrik asko Arrasate:

Azaroan bete du AED kultur elkarteak bere 10. urteurrena. Data pozgarrri hau aprobetxatuz hainbat ospakizun-ekitaldi antolatu ditugu "AED Elkarte 10 urte, egunez egun, Arrasate euskalduntzen" lemapean.

Ekitaldiak amaituta, ondorioak ateratzeko orduan, burututako jarduera ezberdinez egiten dugun balorazioa oso baikorra da. AEDk eta ARKOk Arrasaten antolatu dituzten 2 Jardunaldiok arrakastatsuak izan dira partaidetza, kalitate eta lorturiko oihartzunaren aldetik. Arrasate mailan ekimen ugari bideratu dira: AEDri buruzko gehigarria, EKIN (AED) taldearen erakusketak, Hitzaldi zikloa. Baina erronka zailena jai-giroko ekitaldi masiboekin genuen: Ume eta gaztetxoek jai-erraldoia, antzerkia, "Arrasate euskalduna" herri bazkaria eta Musika jaialdia. Ekitaldi hauek masiboak izan dira eta giro alaian burutu dira.

Ekitaldi guzti hauen antolaketa lanetan, modu batera edo bestera, parte hartu eta lagundu duzuen guztiok har ezazue gure eskerrik zintzo eta beroena. Eskerrak eman nahi dizkizuegu, ekitaldietan partehartu duzuen guztiok eta komunikabideok ere, AEDren 10. urteurrenari, orohar, tratamendu egozia eman diozuelako.

AEDren 10. urteurrena-

ren ospakizun-ekitaldiak arrakastaz burutzea oso sintoma ona da, gure lanak - Arrasate euskalduntzeko pertsona eta entitate arrasatear askok egiten ari garen ahalegina- fruitua ematen ari dela argi eta garbi adierazten digulako eta aurrerantzean ere urratsak ematen jarraitzeko gero eta oinarri finkoagoak jartzen ari garelako.

**AEDREN ZUZENDARITZA
BATZORDEA**

••••

Gesalibarko alkateak Arrasateko alkateari:

Auzo honetako bozeramaile bezala, abenduaren leian ATBko Alkatearekin berbetan programan, Arrasateko alkateak egingako hainbat adierazpenen artean, bat argitu nahi nuke, hain zuzen ATBren seinaleari buruzkoa.

Programa ikusi (bideoan) eta harridura gaintu eta gero ondorio bat atera nuen: "Herri honetako Udaltelean nekazal auzoei dagozkien arazoak oso erraz baztertzen direla mahai gainean".

Badaude bost idatzi Udalteleari zuzenduak, lau alkateari zuzenean (91-10-4; 91-10-21; 92-2-24; 93-12-1) eta bat auzoetako komisioko Lehendakaria denari (92-2-10).

Hauetan, ATB sortu zenetik ikusten ez dugunez, arazoa konpontzeko lagun-

tza eskatzen da.

Hau gutxi bada, ahaztu ezinezkoa da behin eta berriro auzoetako komisiorekin bileratan salatu dudana:

1) ATB bezalako proiektu bat, emisiorako dituen oztopoak aurrez aztertu gabe eta guztien aurrekontuak erabiliaz gainera, aurrera eramateko jorratu den bidea.

2) 1991.eko urriaren leian bidalitako eskariari erantzun baikor bat emateko kapazitate eza.

Puntualizazio edo zehaztasun hau gaizki ulertu batean eror ez dadin, eta denon artean arazo honi eta beste guztiei irtenbidea bilatzekoan, alkate jaunari bere hitzei buruzko argitasuna eskatzen diogu eta ahalik eta azkarren konpontzeko konpromezu bat.

**MARIA ANGELES INURRITEGI
GESALIBARKO AUZO-ALKATEA**

Zuzenketa

Aurreko astean Arrasaten "Chica Almodovar" genuela aipatu genizuen. Informazio hau ez da zuzena, Espe Urteaga Arrasaten bizi arren Aretxabaletarra baita. Gainera, Errioxako herri batean zegoen filmea grabatzen ari zirenean, eta ez Burgosen.

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispes kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

José Angel Iborra

Tfno mugikorra: 908-77 08 56

Arrasate Pasealekua, 12 Bis
ARRASATE


Telemezua-doaneko deia:
900595959 - Bazkide Zn.: 400438

Zelan ospatzen duzu Gabon gaua?



Ana Santana
Umea zaintzen
(22 urte)

Oso ondo, denok familian eta ederto jaten. Ez dut irten izan orain arte, baina aurten asmoa daukat, seguruenik Eskoriatzara, Arrasaten ez da ezer egoten eta.



Sebastian Gorosabel
Langabetua (22 urte)

Etxean pasatzen dut gau hau familiakoekin. Betikoa egiten dugu, jan, edan eta barre batzuk bota.



Puri Otxoa
Etxekoandrea (52 urte)

Normal, baina ahalegintzen naiz alaiago egoten. Gau hau pozik ospatzen dut.



Luxio Galarraga
Fruta saltzailea
(31 urte)

Gehienok egiten dugun moduan, familiaratean afaldu. Tradiziozko afaritxoa egin eta bizkor-bizkor ohera.



Elisabet Sanchez
Bentafriako langilea
(17 urte)

Lehenengo etxean afaldu, abestu eta bingoan jolastu. Ostean kalera irtetzen naiz, Eskoriatzara joaten gara.



Felipe Beitia
Jubilatua (63 urte)

Lehenengo antzera. Afaldu, kartetan jokatu eta kantau. Goizeko 3ak arte edo egoten naiz.



Pilar Rubio
Etxekoandrea (51 urte)

Gizonaz eta semeekin afaldu eta kitto. Ez dut gauza handiegirik egiten. Egia esan triste egoten naiz gau honetan zenbaitzutaz gogoratzen naitzelako.



Victor Bikuña
Langabetua (61 urte)


Familiaz batu eta afaldu. Ostean juerga antzekoa egiten dugu eta goizalderarte egoten gara.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99


TROKO
JANTZIDENDA

Olarte, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 46 94



*URTE BARRI-BARRI
TXARRI-BELARRI
DAUKANAK
EZ DAUKANARI
KOLKUA BETE
MADARI!*

**ZUEN ZERBITZUAN: AUKEA,
ITURBIDE EGOITZA,
UDALAKO INGURUGIRO ESKOLA,
DROGOMENPEKOTASUN ZERBITZUA, KIUB,
ESKOLA KONTSEILUA,GAZTERIA BATZORDEA,
MONTERRON KULTUR ETXEA,
AMAIA ANTZOKIA**



Zer ipintzen duzu etxean, zuhaitza ala belena?



**Francisco Gallego
Langabetua (53 urte)**

Biak gustatzen zaizkit, baina nik neuk zuhaitza ipini dut etxean. Pinua jarri dut apainduta.



**Maria Jesus
Arruabarrena
Etxekoandrea (56 urte)**

Tokirik izango banu, biak jartzea gustatuko litzaidake. Baina lekurik ez dudanez, zuhaitza eta Jesus haurtxoa ipini ditut.



**Celes Sandobal
Fagorreko langilea
(42 urte)**

Normalean biak jartzen ditut, baina aurten etxean obretan gabiltzanez bakarrik Jesus haurtxoa jartzeko asmoa dut.



**Juan Tena
Langabetua (52 urte)**

Belena ipintzen dut urtero. Gainera detaile guztiekin apaintzen dut, errekatxoaz, artzaiekin...



**Valentina Errasti
Etxekoandrea (79 urte)**

Ez dut etxea apaintzeko ohiturarik. Ondo ikusten dut zeozer ipintzea, baina nik neuk ez dut ezer ipintzen.



**Casto Robledo
Acha zurgindegiko
langilea (30 urte)**

Zuhaitza jartzen dut urtero eta aurten ere hala egingo dut.



**Glori La Santa
Fagorreko langilea
(41 urte)**

Zuhaitza eta belena, biak jartzen ditut urtero.



**Ramón Hidalgo
Langabetua (74 urte)**

Lehenago jartzen nuen zerbait, baina orain ez dut etxea apaintzen. Aurreratu beharra dago, beraz aurten ezer ez.



BITXITEGIA

Karmele

ERLOJUDENDA

**ZORIONAK ETA
URTEBERRION**

Ignazio Zuloaga, 10
Tfnoa: 77 07 41
ARRASATE



Marga Romariz Villar
ETXE-ANDIko metrea

Etxe-Andi


— Marga, zegatik **ETXE—ANDI**ra?

— Inguru zoragarri ezkontza, bataio edo edozein ospakizun giro goxoan eta eskatutako prezioan egiteko aukera eskaintzen dugulako.

Etorri lasai, zuek esan prezioa eta guk menua.

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU

Anna de Codorniu



Harra: Galdetxe hutsagatik andregaiak oparia jasoko du

Ehune

Apainketa

*Lorionak
Guztici*

Otalora, 21
Tfnoa: 77 11 48
ARRASATE

Nork ekartzen dizkizu opariak?



Xabier Alzelai
SFX (8 urte)

Amatxok; bueno, Olen-
tzerok. Nere etxerako Lego
eskatu dot.



Maria Fegan
SFX (4 urte)

Erregiak. Eskatu dot ipuin
bat daukona gauzia entzute-
ko musikiakin.



Unai Ugalde
Gazteluondo (5 urte)

Olentzerok, erregiak gu-
txi, olentzerok gehiago. Bi-
zikleta bat eskatu dot.




Lezuri Goiage
Umezaintza (4 urte)

Olentzerok. Grua bat eka-
rri behar dit, eta panpinak ere
bai.



Mikel Larrañaga
Zigarrolako ikastola
(7 urte)

Olentzerok ekartzen dust
etxera. Erlojua eta berak nahi
dauena eskatu dut.



Maitane Gorostiza
Ez du gogoratzen bere
eskola (5 urte)

Olentzerok. Aurten ipuin
bat eskatu dut eta pelota bat.
Ondo portatu naiz.



Aitor Lezamiz
SFX (8 urte)

Aitatxok eta amatxok. "La
aventura del volcan" eta Lego
eskatu dot. Ondo portatu naiz,
e?



Izaskun Caballero
La Merced (8 urte)

Olentzerok eta erregeak.
Aurten, kotxe bat, kapotadu-
na, eskatu dut.



JAI
ZORIONTSUAK
OPA
DIZKIZUEGU!!

24 OSTIRALA

ZINEA

"La Tapadera". 5etan.

TXORONPIO

Eguerdiko 12etan irtengo da.

OLENTZERO BATZOKIRA

Batzokian izango da Olentzero, arratsaldeko 4.30etan.

OLENTZERO

Arratsaldeko 6etan irteera. Ibilbidea: Ferixalekua, Maala, Portaloia, Olarte, Zarugalde, Udala Plaza, San Andres, Portaloia eta Herriko Plaza. 7.30etan Herriko Plazan agurra. Mutil Dantza eta Herri Dantza dantzatuko dira.

MANIFESTAZIOA

Arrasateko preso, errefuxiatu eta deportatuen aldeko manifestazioa. Olentzeroren ibilaldia-
ren ostean.

25 LARUNBATA

ZINEA

"La Tapadera". 4.45etan, 7.30etan eta 10.15ean

26 IGANDEA

ZINEA

"La Tapadera". 4.45etan, 7.30etan eta 10.15ean.

JUANITO ARZAMENDIRI OMENALDIA

Goizeko 10.30etan Oñatiko Bandaren pasakailea. 12etan Letoniako orkestra, Edward Wulfson eta Ane Miren Axperen kontzertua. Sarrera 1.500 PTA. 7etan Letoniako orkestra, Ane Miren Axpe eta Edward Wulfson eta Ainhoa Artetaren kontzertua. Sarrera: 1.000 PTA bazkideek eta 3.500 gainontzekoek.

MARTUTENERA MARTXA

Martuteneko espetxera martxa, abenduaren 26an. Izena eman lehenbait lehen: Irati, Etxerat, Biona edo Gaztetxean. Autobusa Garibaitik irtengo du goizeko 10etan.

LUDETEKAKO ORDUTEGIA

Goizeko 10.30etatik ordu bata t'erdiki bitartean zabalik izango da, abenduaren 27, 28, 29, 30, 31 eta urtarrilaren 3, 4 eta 5ean.

OLENTZEROAK ERREGALUAK EKARRIKO DIZKIGU DENOI



BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguaiatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutz gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberdrola) 12 01 62
 Gasas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 24**
 Eguez eta gaez: Amezua. Santa Marina
- Larunbata 25**
 Eguez eta gaez: Ruiz. Magdalena.
- Igandea 26**
 Eguez eta gaez: Morales. San Andres.
- Astelehena 27**
 Eguez eta gaez: Azkoaga. Ferrerias.
- Asteartea 28**
 Eguez eta gaez: Español. Iturriotz.
- Asteazkena 29**
 Eguez eta gaez: Corcuera. Musakola.
- Osteguna 30**
 Español. Iturriotz. Irizar. Erguin.

27 ASTELEHENA**ZINEA**

"La Tapadera". 7etan eta 9.45ean.

KANTU ZAHAR IKASTAROA

AEDko Gazte Mobidiek antolatuta. Urtarrilaren 15etik martxoaren 5era. Larunbatetan 4.30etatik 7etara. Mikel Markezek emanda. Jende kopuru mugatua. Matrikula 2.000 PTA. Informazioa AEDn.

TAILA ERAKUSKETA

Kepa Uribarren Munitxa arrasatearraren eskutik. Ikusgai: Arrasateko harmarria, ispiluak, erlojuak, kutxak, erretratoak... Harresi aretoan. Lanegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Abenduaren 31 rarte.

GOÑIRA IRTEERA

AEDko gazte mobidiek antolatuta. Abenduaren 27tik 30era. Prezioa 3.500 PTA. 16 urtetik 23 urte bitartekoentzat. Izenematea eta informazioa, 771228 telefonora dei eginda.

**28 ASTEARTEA****ZINEA**

"La Tapadera". 7etan eta 9.45ean.

PAILAZOAK

Kokotx, Kakatx eta Kirriki. Aretxabaletako Zaraia zineman, arratsaldeko 5etan. Sarrera dohainik.

29 ASTEAZKENA**UMEENTZAKO PARKEA**

Aretxabaletako frontoian. Goizeko 10etatik ordu batera eta arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

30 OSTEGUNA**KONTZERTUA**

San Frantziskoko "Grups", punk-rock taldea eta inguruko talderen bat. Gaztetxean, arratsaldeko 7etan.

TXIRRINDULARITZA ZUZENDARI IKASTAROA

Herrialdeko kirol zuzendari titulua lortu nahi dutenentzat. 18 urtetik gora izan eta eskola graduatua dutenentzat. Prezioa: 10.000 PTA eta titulua lortzen dutenei 5.000 PTA bueltatuko zaizkie. Ikastaroa 1994ko urtarrilaren 15, 22, 29 eta otsailaren 12an, goizez eta arratsaldez izango da. Bergarako Lanbide Hezkuntza Eskolan. Izena emateko epea urtarrilaren 11n bukatzen da. Arrasaten, Musakola Kiroldegian egin daiteke matrikula.

**ARGAZKI ERAKUSKETA**

"Euskal Tradizioaren Jaiak" argazki erakusketa. Ihauteri, Aste Santu eta San Migeletako argazkiak ikusgai. Monterron Kultur Etxean, abenduaren 29rarte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara zabalik.

“Euskaldunon ‘tristezia’ famatu hori gabe egin behar da aurrera. Herri honetan jende triste asko dago, jende motela, alderdi guztietan arazoak ikusten dituena. Nork esango luke Arrasaten hainbeste erdaldun egonda... jendeak uste du Arrasate izugarria dela. Putza! Hasi, egin, aritu! (...) Bada ordua beste herri batzuetan beste era bateko ekimenak asmatu eta garatze-ko. Ezin da mimetismo hutsez jokatu. Arrasate Pressekin hori gertatu da. Hori kaltegarria da. Hasteko bai, baina gero nork bere bidea egin dezala. Ezin da eredu bakarra izan. ARKO egundokoa da, eta ARKO gora eta ARKO behera. Aztertu lau edo bost eredu eta bakoitzetik onena hartu”.

Asier Arangurenek

HABE

“Kirol gehienek erakundeen dirulaguntzak jasotzen dituzte, baina atletismoak aldiz ez. Komunikabideek ere erabat baztertuta dute; telebista piztu eta begi-bistan geratzen da atletismoari ematen dioten tratamendua eskasa dela. (...) Badirudi behin adin batera helduz gero, ezin dezakezula kirolik egin edo konpetitzeko zaharregia zarela, baina nire ustez, pentsakera hori alde batera utzi behar da eta pertsona guztiak, batez ere emakumeak animatuko nituzke kirolen bat egitera, hasteko inoiz ez baita berandu”.

Mari Jose Gilek 93-12-16koan

Egunkaria

“Irakaslego propioa burugogorki defendatu izan duten irakasleak Unibertsitatetik botaz, horrela, euren Proiektu-gaitasuna ere bertan behera utzi nahi da. (...) Demokrazia estamentalak eta bide errepre- siboaren alde apustu egin duen sektoreak, ia definitiboki konpondu du arazoa. Esperantza hautsi egin da. Normal- tasun akademiko berriak ez dio Unibertsitateko Komuni- tatean posible den heterogeneotasunaren adierazpen demokratikoari lekurik egiten”.

Antxon Mendizabalek 93-12-14


egin

Zelan ospatu behar dituzte gabonak fededunek?

Kristo ez zen jaio abenduaren 25ean. Data hau artifiziala da ez baitakigu Jesus noiz eta non jaio zen. Orduan zer ospatzen da gabonetan? Ba, Jesusen presentzia mundu osoan. Zerbait harrigarria gertatu dela ospatu nahi da eta horregatik aspaldian, data hauetan jai egun hauek ospatzea erabaki zen. Lehendik ere baziren festei eduki bat eman zitzairen, hau da, zentzu erlijiosoa eman zitzairen. Beraz, fededunok Jainkoaren presentzia ospatzen dugu gabonetan. Hau, jakina, festa eginez eta gure nahi guztiak liturgizatuz burutzen dugu. Egiazki hau da kristauak gabonetan bizi eta sentitu behar duena. Horregatik opari, argi, afari eta bazkariak badute beren zentzua. Ekintza hauen bidez, barruan dugun poztasuna adierazten dugu. Jainkoak opari harrigarri eta ederra egin digunez, guk ere opariak egiten ditugu.

Gertatu dena zera da, enpresek garai hau aprobetxatzen dutela etekinak ateratzeko. Era honetan gizakia bultzatzen dute barruan dituen beharrak kontsumituz asetzerara. Merkatua, gizakiak berez barnean dituen sentimenduez baliatzen da, baina gabonetako kontsumismoak ez du zerikusirik gizakiak bizi eta sentitu beharko lukeenaz. Kontsumismoak gure beharrak manipulatu ditu. Horrela gizakiak sasoi honetan sentitzen duena, azalekoa izaten da.

Gabonetan barne poza sentitu behar dugu eta lehen esan bezela, Jaungoikoaren presentzia ere bai. Festa hauek eliztarrok batzeko balio dute eta sinboloen bidez guzti hau ospatzen dugu.



Jose Mari Astigarraga
Arrasateko Parrokoa




SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

**FESTAK
LAGUN GIROAN PASA
ETA
URTE BERRIARI
GOGOZ HELDU**


ARRASATE ZOO

- *Etxeko animaliak eta animalia exotikoak*
- *Etxeko animalientzako janari eta osagarriak*
- *Haziak*
- *Fitosanitarioak*
- *Akuariorfilia*



**Eurentzat ere
Zorionak!!**

Zarugalde, 19 - Otalora, z/g Tfnoa: 77 06 67



Ukipen lenteak
19.000 ptaren
truke

**Eta gainera,
botatzeko
See Quence
lentilak
eta riñonera**

Eskaintza honek 1994ko urtarrilaren 15era arte iraungo du.




**Jai hauetan, egin oparia
zeure buruari**



Ez utzi aukera hau pasatzen

1960tik, gaur zuri bitxi etas erlojugintzak katalogorik zabalena eskaintzeko



Zubiaga
Kale-barria, 18
20.560 ONATI
Tfnoa: 71 60 74

Zubiaga
Maalako Arrabala,
20.500 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25 FAX: 79 14 8

UNITED COLORS OF BENETTON

Maalako Arrabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE

a, eme... interiores

a, eme...
interiores

Etxeko ekipamendu osoa

Garibai 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

Taxista bat hilda istripuz

Manuel Blanco Paz, 41 urteko taxista arrasatearra, hil egin zen auto istripu batean Kondesan (Araban) joan den larunbat eguerdian. Hildakoaren alaba, Maria Mercedes Blanco 19 urtekoa, autoko gidaria zen une hartan, eta larri zaurituta geratu zen. Antza denez, kamioi bat aurreratzen ari zela, beste auto baten kontra jo eta errepidetik irten egin zuen bere Fiat Croma autoak. Bertantxe hil zen Manuel Blanco, eta oso larri dago alaba Santiago ospitalean. Taxistaren emaztea eta semea beren atzetik zihozten beste auto batean eta istripua ikusi egin zuten.

Beste istripu bat Roneon

Bi pertsona zauritu ziren joan den ostegunean Arrasaten gertatutako istripu batean. Roneoren parean gertatu zen istripua, errepide nagusian, Ford Sierra batek Scania kamioi baten kontra txoke egin zuenean. Bi zaurituak bergarar bat eta Valladolideko gizon bat izan ziren.

Goñi Intsumisoa kartzelara

Arrasaten ikasten ari den Ander Goñi intsumisoa kartzelan sartu dute berriro, espetxeetako 3. gradua hausteagatik, kartzelara lotara itzultzeari uko egiteagatik. Goñi beste hiru intsumisorekin zegoen



Ordorika Santamasetan

Santamasen aurreko asteburuan jaiekin loturiko hainbat kirol eta kultura ekitaldi izan genituen. Bat aipatzekotan, Ruper Ordorikaren ostiraleko kontzertua ekarriko dugu hona. Bere *mugalari* berriztuekin, soinu bikaina eskaini zuen Rupe- rrek Amaia antzokian, eta publikoak eskertu egin zuen emanaldia. Abesti berri ugari eman zituen oñatiarrak, bere estilo pertsonal horretan. Oraindik ez zaio ulertzen esaten duenaren erdia, baina berdin dio, bere ahoskera berezi hori maite dugu, eta kantutik kanturako bere komentario absurdo xamarrekin publikoa ederto bereganatzen daki beltzezko rockero patiladunak, euskal Roy Orbison paregabeak.

itxialdi batean Bilbon, lotara kartzelara itzultzeko aginduari uko eginez, baina indarrez espetxeratu dituzte lauak. Ander Goñi Etxarri Aranazkoa da, baina Arrasaten ikasten du injinerutza Eskola Politeknikoan, herrian bizi da astean zehar eta LKSn lan egiten du gainera.

Ertzainen autoa sutan

Joan den ostiral goizaldean Arrasateko baseko ertzainen auto bat erre egin zen Arlabango gainean. Motorea hondatu eta sua

hartu zuen autoak, eta zeharo erre zen suhiltzaileak ailegatu orduko. Ez zen zauriturik gertatu intzidente horretan.

Krisiaren Aurkako Taldea

Arrasateko Krisiaren Aurkako Taldeak joan den astean egin zuen bere lehen aurkezpen publikoa, Portaloian egindako kontzentrazio batean. Talde horrek, herriak jasaten dituen hainbat arazo sozial eta ekonomikoren aurrean "zuzentasuna, elkartasuna


eta borroka" aldarrikatzen ditu. Arazo hauen adibide zerrenda luzea litzateke: hor ditugu "langabezia, enpresak ixtea, lan kaskarrak, giza pobrezia, gazteriaren etorkizun larria". Beste herri batzuetan ere sortu dira antzerako taldeak, eta Arrasatekoak bere mobilizazioekin segitzea espero du aurrerantzean.

Langabezia kooperatibetan

Kooperatibetako langabeziaren arazoaren inguruan, Lagun-Arok prestazio hori arautzeko azterketa bat egin du, sortzen diren arazoei irtenbideak emateko modua jarriko duten hobe-kuntzak eskaini ahal izateko, 'Jakina' aldizkariak kaleratu duenez. Egin diren proposamenak birkokapenak indartzearen bidetik doaz, baina onartu baino lehenago, proposamen horiek kooperatibetara bidaliko dira, egoki irizitako aportazio eta aldatetarako ahal izan ditzaten.

Fagor Ederlani saria

Rover automozio etxe britainiar ezagunak Fagor Ederlan kooperatibari eman dio probeedore onenaren saria aurten. Rover da, hain zuzen, Ederlanen bezero onenatariko bat. Aurten, enpresak fakturako dituen 11.600 milioi PTatik 2.000 PTA Roverri esker izango dira, eta datorren urterako kopuru hori % 50 igotzea espero dute.



MIKEL OLABE*

Gabonekoa kontsumoaz zer?

Sasoi ona da hau gure ohi-turetako batzuk zalantzan jartzeko. Hori dela eta, Deba Garaiko EKI kanpaina berezia egin behar dugu gai horren inguruan. Arrasateko Udalak laguntza eman digu kanpaina hori burutu ahal izateko, eta lerro hauen bidez eskerrak eman ere egin nahi genizkioke.

Hitz gutxitan esateko, holako hauek izango lirateke gure kanpainaren ildo nagusiak:

—Alde batetik kontsumismoa kritikatzeko, gizakien arteko desberdintasuna iturri den aldetik, hemen bizi garenon arteko desberdintasun, edo Hirugarren Munduarekiko desberdintasuna... guk bota egiten dugu, eta eurak goseak bizi dira.

—Egun hauetan anaitasun eta solidaritatez ahoa betetzen duen kontsumismoa kritikatzeko, marginatu papera oso modu adierazgarrian betetzen duen gizartearen zati

batek, krisiak eraginda.

—Gabonetako kontsumismoa kritikatzeko, gauzak erostea zoriotsu izatearekin parekatzen duelako.

—Kontsumismoaren kritika, baliapide naturalak mugatuak direla eta ezin daitezkeela derrotxatu kontutan hartzen ez duelako. Bizitzako ohi-turak bizitza-kalitatearen kontzeptu berri batetaruntz aldatu behar dira.

—Gabonetako kontsumoak gaizki tratatzen du fauna: larruzko jantzien saleroketa gehiegizkoa, beharrezko ez den heriotza dakar animalientzat, horietako asko desagertzeko zorian dauden arren. Horrekin batera baita animalia exotikoak erostea ere, kaio-lan edukiz euren bizitza arriskuan jarri eta sufritu-araziz. Animaliak euren berezko habitatean eta aske bizi izateko sortuak dira. Kaiotetako ateak ireki egin behar dira.

—Gabonetako kontsumismoak suntsitu egiten du

natura: dekoraziorako landare larregi erabiltzen da, animalientzako babes eta janari direnak gainera. Gorostia, izaia eta miura ez genituzke erosi eta batu behar, eta izeiak edo antzekoak erosten dituztenek, sustarrarekin eta hezetasunean zaindu behar lituzkete, eta gero berriz landatu.

—Gabon jaietako kontsumismoak sortzen duen hondakin kopuru handia birziklatzeko modua bilatu behar litzateke. Horretarako, kontenedoreak erabiltzea gomendatuko genuke.

*EKIkoa

USTEAK USTE

BUSTEAK BUSTE

Jaien buila burrunbatsuan gaudela, buzoian jasotzen duzun buletin hau bururatzen dugun filibustero eta bukane-rook burburka ditugu burmuinak, eta buuu esan nahi diegu bulegari txoriburuei, buntziornario burukideei, Buesa sailburuari, eta burus-oil aburritu guztiei.

Buuu!

Buka dezagun burokrazia! Behera butakak eta gora tabureteak! Munbuari buelta eman, liburutegiak buruz-behera jarri, ortografia arbuiatu eta bulebarrak burdel bihurtu! Burruka ditzagun burges abulikoak, bultza dezagun irabultza! Burla ditzagun gutaz abusatu dutenak, eta izan gaitezen burujabe, burugabeak.

Bust axola digu buztia, bufoiak gara, buhameak gara, ez dugu buztarririk abuantzen eta ez dugu buruzagirik, ziburuan gabiltza bueltaka, helburu barik: gora bu ta butarrak!

Bunba txanpain-butilak! barrena busti burbuilez, bularra bete buzkantza, budin eta butifarrez, bukatzen zaigu eta burtea. Eta bulertzen ez dutenei: buuuu!

BUIS FERNANDEZ

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ARTOLA KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

LODITASUNA, LIPOESKULTURA, LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta
loditasuna behin betirako
kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54



Maiatzean sare publikoan integratzeari ezetz esan zion SFX ikastolak.

SFX ikastolak 94.erako helburuak markatu ditu

San Frantzisko Xabier ikastolak urteko balantzea egiteko biltzarra egin zuen astelehenean. Urteko gestio balantzea onartu zen biltzarrean. 93.a ez da izan nolanhiko urtea ikastolaren bizitzan: maiatzean, bozketa estu batean (458 boto 357ren aurka) sare publikoan ez sartzeari erabaki zuten ikastolako asanbladak. "Orrialde horri buelta eman nahi diogu jada", dio Edurne Erauskinek, SFXko zuzendariak. Bere ustez, bazkideek prozesu haren emaitza asumituta daukate dagoeneko.

Baina atzera begiratzeaz gain, aurrerako ibilbidea jorratu zuten biltzarrean. Hiru helburu nagusi markatu ditu ikastolak 94erako:

• **Euskararen erabilpena bultzatzea**, irakaskuntzaren eremutik haratago, herrira eta kalera begira lan egitea Hezibide egiten ari den plan baten bidez.

• **Barne komunikazioa areagotzea**. Langileen artean dagoeneko kaleratzen dute berripaper bat ("Erretolikié"), eta orain gurasoei hiru hileko guztietan diptiko bat ("Hur-

biltzen" izenburuaz) bidaliko diote ikastolaren berri emanez.

• **Proiektu hezitzaile propioa garatzea**. Hezibide marko komun bat badu, baina ikastetxe bakoitzak bere berezitasunak dituenek, alor hau gehiago jorratu behar du SFXk, aldi berean horrela markatzen duelako Hezkuntzako lege berriak.

1994. urtea, gainera, Ferixalekuko ikastetxe berrituaren estreinua izango da. Iraitlean, ikastolako 12-16 urteko gazteentzako irakaskuntza ertaineko klaseak han emango dira. Berriki, Ferixalekuko eraikuntzarako errefortzuak egiteko proiektua onartu du udalak, 3 milioi PTAtan, baina ez, lehengo astean ARRASATE PRESSEN genion bezala, hasierako proiektuak hutsunerik zuelako, baizik eta proiektu hartan zegoen karga-frogaren ordez, zuzenean errefortzua egitea erabaki duelako Udalak.

Ekonomia gaiak ere aipatu zituzten asteleheneko biltzarrean, eta azpimarragarria da aurtun kuotak ez dituztela igoko.


Errepideen konponketa

Arrasate zeharkatzen duen errepidearen konponketa beharra dela eta, eztabaida luze batean dihardu Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Herriko ikuspuntutik errepideak zaintzea Diputazioari dagokionez, hark konpondu behar ditu kale horiek, baina orain arte Foru Aldundiak ez du gasturik egin, azken asteetan hainbat bider eskatu arren. Udalaren ustez, ezinbestekoa da errepideak lehenbailehen konpontzea, bereziki Euskal Herriko itzuliaren hasierarako, hau da, apirileko lehen asterako.

Ur sarearen kontrola

Arrasaten kontsumitzen den uraren gastua kontrolatzeko proiektu bat egin du Udalak. Gaur egunean, Arrasatek hiru puntutik jasotzen du kontsumorako ura: Urkuluko urtegitik eta Bostate eta Benerasko iturrietatik. Ondoren, fakturatzen den ur kantitatea kontrolatzen da, zenbat joaten den etxeetara, baina ez zenbat hartzen den iturrietatik, eta bideak ura galdu egiten den susmoa dago. Horregatik, aurrerantzean sarean sartzen den ur kopurua, eta gero etxeetara heltzen dena gonbaratu egingo dira, galerak dauden jakiteko, neurtzeko, eta ahal dela behintzat, konpontzeko.

GPB



Taberna

ONDO PASAIZU!


- GOSARIAK
- PINTXOAK
- GAU KOPAK

Garibai Etorbidea, 5

Bodisca s.l.

Zeramikako pabimentu eta gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3
ARRASATE Tfnoa: 79 65 25



Autopista egiteko 50.000 edo 70.000 milioi PTA beharko dira.

Autopistaren proiektuan 212 milioi gastatu dituzte

Administrazioak 212 milioi PTA gastatu ditu dagoeneko Maltzaga-Urbinako autopista proiektua sustatzen. Finantzaketa aha- legin hori diru publikoak estali du orain artean, Eusko Jaurlaritzak ordaindu du erdia eta laurden bana, 53 milioi PTA, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek. Hala ere, Maltzaga-Urbina egiten bada, guztira kostatuko denarekin alderatzerik ez du orain artekoak. Autopista egiteko aurrekontu posible gisa 50.000 edo 70.000 milioi PTAko kopuruak aipatu izan dira.

Administrazioak, tarteko enpresa sortu- berri baten bitartez egiten ditu gastuak: Deba

Bailarako Autobidea SA. Izen hori eduki arren, administrazioak garbi utzi du ezer egitekotan autopista izango dela, ez autobidea. Eta gainera, Bilbo-Behobia autopis- tako peajea ere luzatuko egingo omen da, hemengo finantzatzeko. Inbertitutako 251 milioien parte handi bat Interbentzio Gune Partehartzaileen (IGP) prozesua bideratze- ko erabili da.

Gizarteaz gabinetek, IGPen antolatzaileak, prozesu honek 60 milioi PTAtik gorako aurrekontua daukala adierazi zuen bere garaian. Lehen IGPa Arrasateko Aita Menni ospitalean bilduko da urtarrilaren 10ean.

Bahiketa- salaketa

Angel Panuero 35 urteko arrasatearrak, bahiketa estraino baten biktima izan dela salatu du Bergarako epaitegian.

Gertaerak joan den abenduaren 6an izan ziren. Diskoteka batetik irten eta gero, ezezagun bat hurbildu zitzaion, eta ondoren musuan zapi bat jarri ondoren, konortea galdu zuen. Hurrengo orduetan detaile sueltoak besterik ez ditu gogoratzen. Horien artean, bera bahitu zutenak hiru zirela eta armak zeroaztela, baina ez ziren lapurrak, ez zioten eta ezer kendu. Bahiketaren tarte horretan, gainera bere lagun baten etxean azaldu zen, oso aldatuta, baina Angelek ez du hori gogoratzen. Lagun horren ama lekuko bezala azaldu da epaitegian, Panuerok eskatuta.


Goizeko 10ak aldera askatu zuten Angel Araban, Landako urtegiaren ingur- ruan drogatuta edo balego bezala. Besoan xiringa batekin egindako bezalako pintxazoa ere bazuen salatzaileak, epaitegian deklaratu duenez.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Oñatiko baseko suhiltzaileek beren lanbidearen profesionaltasuna defenditzen dute.

Diputazioa kritikatu dute suhiltzaile profesionalak

Zubillagako suhiltzaileek beren basearen egoera kaskarra salatu dute agiri batean. Suhiltzaileek diotenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu zerbitzu egoki bat eskaintzeko behar diren baliabide humanoak jartzen. Gainera, Deba Garaian, Mankomunitatearen bitartez, boluntario brigada bat eratu nahi du Diputazioak, eta hori zerbitzuaren kalterako baino ez da izango, suhiltzaileen ustez.

Boluntario gehiago jartzea ez zaie ideia zuzena iruditzen suhiltzaile hauei. Alde batetik, diote suhiltzaileek, larrialdietan erantzuteko gaitasuna txikitu egingo litzateke boluntarioekin. Bestetik, Diputazioak pro-

fesionalak ordezkatu egin nahi ditu gutxi-naka, zerbitzua merketzeko edo.

Diputazioak onartzen du gero eta boluntario gehiago erabili nahi duela. Foru Aldundiko teknikarien esanetan, European gero eta suhiltzaile profesional gutxiago egoteko joera dago. Alemanian, adibidez, profesional bakoitzeko 14 boluntarioko proportzioa egongo litzateke.

Mankomunitatearen, Diputazioaren eta Zubillagako auzi honekin paraleloan Arrasateko udalaren asmoa daukagu. Izan ere, suhiltzaile boluntarioen brigada propioa eratzekotan ari da Udaleko pertsonal batzordea aspalditik.

Asteleheneko plenoan bi mozio

Datorren astelehenean egingo da 1993. urteko azken plenoa. Beste gai batzuen artean (adibidez, kale izendapenak eta azoka plazako araudiaren onarpena) bi mozio aztertuko dira. Bata Arrasateko Senideak elkarteak aurkeztu du, arrasatear batekin ezkondata dagoen Unai Parot presoak azaroaren 18an jasandako jipoia gaitzesteko, eta horren inguruan iniziatiba batzuei ekiteko. Beste mozioa, Arrasateko Torturaren Aurkako Herri Ekime-nak aurkeztu du. Estatu espainiarrean tortura posible egiten duen legedia aldatzeko eskatzen du mozio horrek.

Kristina Zeziaga aske

Kristina Zeziaga preso arrasatearra astelehenean, hilak 27, askatuko dute. Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak harrera omenaldi bat prestatu du egun horretarako. Kris Zeziaga bost urtez egon da espetxeratuta, eta orain 31 urte dauzka.

AMORE EMANGO DUZU!

ART. 5
Iturriotz, 19 ARRASATE



Ipek
Denda

Zetaz jantziko zara

LENIZ

Garagardotegia


Jai
zoriontsuak



Iturriotz, 8
Tfnoa: 79 22 29
ARRASATE




Amalia Espejok, Ispilu tabernakoak, guk baino lehenago jaso du olentzeroren oparia. Joan zen ostiralean, Kutxako bulegoan utzi zion olentzerok oparia. Eta zelakoa gainera: Auto eder gorri-gorria! Badirudi Amalia oso ondo portatu dela aurtan.



Ale honetako azal polita **Haritz Kortabarriak** egin digu. San Viatorren ikasten du Haritzek. Seigarren maila egiten ari da aurtan. Bere marrazkiko mutiko batek opari gutxi jaso du ondo portatu ez delako edo. Baina zeu Haritz, mutiko ona izan zara aurtan?

Hona hemen Santamasetako txerriaren zozketako zenbaki irabazlea: 3.044. Zenbaki hau duenak txerri osoa eramango du. Zozketa honetan ez dago pedrearik.

Ordizian Arrasaten egindako jostailuak. AEDko Txatxilipurdi taldeak eta ludotekak antolatu zuen erakusketa. Ordiziako guraso eta hurrek hirurogeita hamarren bat jostailu ezagutzeko aukera izan zuten.



“Sustatu” lehiaketako sari banaketa egin zen joan den astelehenean. ARKO ere saritua izan zen, ATB eta ARRASATE PRESSen bitartez gai sozialen inguruan egiten duen sentsibilizazioa dela eta, 3. sariarekin itzuliginen etxera. **Lutxi Arregi**, ATBko teknikoa, arduratu zen saria jasotzeaz. Bilboko Arriagan, lankide izandako batekin egin zuen topo, **Anne Igartiburu**ekin. Anne, jaialdia aurkezteaz arduratu zen. Bestalde Oskar Epeldek ere saria jaso zuen.



ZORIONAK

Yomai

OTALORA LIZENTZIATUA, 21
TFNOA: 79 11 12




Gregoria Markaide arrasaria berak jaso zuen. Bere tearrak ogi ederra egiten bada- postua ikusi eta gero konturatu kiela erakutsi zuen. Ogi saileko ginen: ogia egitea artea ere bada.



Barazkietan pareja ezagun batek bi sari eraman zituen. Bedoñako Biosoko **Jose Iturbe** eta bere emazteak, **Kontxitik**, bigarren saria eta sari berezia irabazi zituzten. Inguruko baratzetan jaiotzen da produktu onik. Bai horixe!

San Andresen astoa hartu eta dotore-dotore etorri ziren gatzagarrak Santamasetan. Euren-eurena den produktua saldu ziguten: gatza. Analisatu gabe omen dago gatza, baina zapore ezinhobea ematen omen dio janariari. Gainera, eurek ere aspalditik erabiltzen dute gatz hau, eta orain arte behitzat ez da ezer arrarorik gertatu.



Euskal Herrian badugu azokara Berriztik ekarri geure geurea den sagar dituzte. **Mercedes Iraeta** moeta, beste inon jaiotzen berriztarrak erakutsi zituen ez dena. Baina hauek hemen bertako sagarrak: oraingoz, Santamasetako bost kantoiz izenekoak.




**GORANTZI
BEREZIAK
JAIOK NORMAL
OSPATU
EZIN DITUZTENEI**

Eskaparate lehiaketako irabazlea zein den ezagutzen asteazkenean. Lehen saria "Troko" jantzidendari eman zioten. Bertako dendariak, **Carmen Olivares** eta **Mari Cruz Garciak** ez zuten saria espero, euren imaginazioa saritua izan zitekeela ez baitzuten uste.



Musika garrantzitsua da jai giroa berotzeko. Berez trikitilari, dultzainari eta txistularien soinua Santamasetarako

aproposena da. Baina Boliviatik etorritako talde honen musika ere gustora entzuten zen, ezta?



Jesus Mari Plazaolak, Udala auzokoak, gazta lehiaketako hirugarren saria jaso zuen. Epaimahikoek esan zigutenez, aurten batez ere gazta finak aurkeztu dira lehiaketara. Jesus Marik ere halaxe esan zigun. Izan ere, gaur ez dira lehengo gazta pikanteak egiten.

ESKINA

Olarte kalea, 25 ARRASATE

TABERNA

ZORIONAK

Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Goleadak eta gorabeherak

Aste honetan, 93. urteko azken jardunaldian, izan dira gorabeheraren batzuk Zaldibarko txapelketan. Partidu bat inpugnatu egin du talde batek eta emaitza aldatu egin zaio, eta beste bi talderi bi puntuko zigorrak ezarri zaizkie arbitrorik ez jartzeagatik.

Horrez gain, lehen postuetan sailkatutako taldeek beren lidergoak indartu egin dituzte jardunaldi hone-

tan; eta gol askoko emaitzak ere ikusi ditugu. Orain arteko goleadarik handiena izan zatekeen Motz - Corinto Taberna partidukoa (15-0), Zulussek Iluna Tabernari 20 gol egin izan ez balizkio. Tabernariak kaskar ibili dira beraz. Ilunakoei, aurrekoa gutxi balitz, bi puntuko zigorra ezarri diete arbitroa zegokion partidura ez azaltzeagatik. Gauza bera gertatu zaio Fancy Bois taldeari.



ARGÍ PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konprometzu barik**

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2
(Parroikia ondoan)
ETORRI IKUSTERA!



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

OKASIOA!!

Informazioa
eta
salmenta

79 19 96

Lokal komertziala salgai
(Ferixalekuko parkearen alboan)

OSO PREZIO INTERESGARRIA

Ordainketa-era eztabaidagai

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	11	11	0	0	77	12	22
TRIKITI	11	10	0	1	59	13	20
ARLUTZ	11	8	2	1	48	18	18
JEY JULIWER	11	7	3	1	38	17	17
ZOTZ	11	7	2	2	36	32	16
UGLYS TXINATO	11	6	2	3	37	28	14
ANBOTOSTE KT	11	6	2	3	28	20	14
SOKOAKOAK	11	7	0	4	43	40	14
BERANGO SUKAL	11	6	1	4	35	24	13
KOKKAS	11	4	1	6	30	30	9
BIZKORRAK AVE. T.	11	3	3	5	27	35	9
WHISKERIA LINDE	11	4	1	6	32	50	9
FRAGUEL GOL	11	2	3	6	21	30	7
EUSKAL INDARRA	11	3	0	8	45	54	6
IKATZ	11	2	2	7	34	59	6
AUF DEM KOFFER	11	3	0	8	21	43	6
ALLA KUIDAUS	11	3	0	8	23	52	6
BAYERN LENITZ	11	3	0	8	16	50	6
RESAKAS	11	1	3	7	25	43	5
ETXE MOBILIARIO	11	1	1	9	21	46	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	11	11	0	0	76	26	22
DANOK LAGUN	11	7	4	0	34	16	18
ZULOAK	11	7	2	2	39	24	16
ARR. KIROLAK	11	8	0	3	42	28	16
BUKANAK	11	7	1	3	45	21	15
LEINTZ GARAGAR.	11	7	1	3	46	17	15
TRONKOTEAK	11	7	1	3	35	29	15
IRATI STS	11	6	2	3	45	25	14
BETRAYER	11	6	2	3	50	30	14
ALPEN KRAUSSER	11	6	1	4	47	57	13
EXCAV. LETE	11	3	4	4	31	33	10
OJO AVISORE	11	3	3	5	41	46	9
GANBELAS	11	4	0	7	31	38	8
DIEGO ANTONIO	11	3	1	7	28	36	7
NOTXINGAN FLO.	11	2	3	6	32	49	7
FANCY BOIS	11	2	2	7	29	44	6
OOOLE	11	3	0	8	28	55	6
KOPYPREST	11	2	1	8	27	45	5
MONTERREY Z.B.	11	1	1	9	26	59	3
ATXANTA KE TE...	11	0	1	10	20	74	1

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	11	9	1	1	55	13	19
LOS HEREDIA	11	9	1	1	38	15	19
NABARROS	11	8	1	2	43	17	17
ARR. KRISTALDEGIA	11	7	2	2	40	22	16
PEPELUS	11	7	1	3	50	23	15
MIKELOS	11	7	1	3	36	22	15
KAKAJAURI	11	5	4	2	30	22	14
MOTZ	11	5	1	5	45	27	11
ADELAIDA HAIZEA	11	4	3	4	25	31	11
TXOKO TABERNA	11	5	1	5	23	29	11
HIREI	11	4	2	5	33	37	10
KIRTEN TROPEL	11	4	2	5	25	27	10
FOTO IMAGEN	11	3	3	5	28	33	9
LOS DALTON	11	3	2	6	36	42	8
POTROSORRI	11	4	0	7	18	26	8
SIBILIUS ROVER	11	4	0	7	19	28	8
MZK GANBELAS	11	2	2	7	28	35	6
BORROCKN ROLL	11	3	0	8	24	51	6
LEYA	11	2	1	8	25	61	5
CORINTO TABERNA	11	1	0	10	22	82	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULUS	11	9	2	0	84	26	20
AC SURCOS	11	9	1	1	60	23	19
POTROAK LORATEG	11	8	2	1	57	27	18
TOVARITX	11	8	2	1	42	22	18
TUTTIFRUTI	11	7	3	1	56	31	17
CARBUIROS	11	6	4	1	41	22	16
REVOLUTION ROCK	11	8	0	3	45	25	16
LASO ARREGI	11	7	1	3	42	33	15
FRANCISCANERR	11	7	0	4	56	36	14
KRISKIBALDA	11	5	2	4	43	34	12
MACCABI DE LEV.	11	4	1	6	28	36	9
NUOVO TABERNA	11	4	1	6	27	35	9
GURE LEKU	11	4	1	6	29	40	9
LOS DIMY	11	2	4	5	30	30	8
SOLANO 7 MARES	11	3	2	6	33	64	8
BODISCA	11	2	1	8	22	43	5
ILUNA TABERNA	11	1	1	9	23	81	3
EZKINAKO HONTZAK	11	1	0	10	19	59	2
KOAK LAIT	11	1	0	10	22	50	2
ELISABETH	11	0	0	11	23	65	0

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

I R T I

TABERNA

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

ERAIKUNTZAK

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK

77 08 15



Joan den asteburuko partidu interesgarrien artean derby bat zegoen: Argi Ibili - Zuloak. Lehenbizikoentzat izan zen garaipena (3-1), eta beren faborito famari eusten diote era horretan. Golik gabeko aurtengo denboraldiko bigarren partidua ere ikusi dugu: Anbotoste-KT eta Zotz izan ziren 0-0 horren protagonista tristeak.

BELARRIRA

◆ **Euskal Indarraren berpizkundea.** Motz (15-0) eta Zulus (20-0) taldeen goleadez gain, Euskal Indarrak egindakoak merezi du aipatzeak: 13-7 irabazi zioten Whiskeria Linderi. Benetan aipagarria da Euskal Indarrarena, aurreko jardunaldian 12 gol sartu zituztelako. Kontua da aurreko beste 9 jardunaldietan partidu bakarra irabazi zutela.

EMAITZAK

A TALDEA

Fraguel Gol 1 - Jey Juliwer 1
 Etxe Mobiliario 2 - Resakas 2
 Berango Sukaldeak 1 - Suministro Ugarte 4
 Auf dem Koffer 1 - Uglys Txinato 3
 Anbotiste KT 0 - Zotz 0
 Alla Kuidaus 0 - Trikiti 6
 Arlutz 7 - Sokoakoak 2
 Bayern Lenitz 2 - Koxkas 1
 Bizkorak Avenida Taberna 1 - Ikatz 1
 Euskal Indarra 13 - Whiskeria Linde 7

C TALDEA

Kirten Tropel 3 - Los Dalton 1
 Hirei 4 - Mikelos 3
 Fosforos 3 - MZK Ganbelas 1
 Txoko Taberna 1 - Pepelus 7
 Arrasate Kristaldegia 4 - Sibilius Rover 1
 Adelaida Haizea 2 - Nabarros 7
 Corinto Taberna 0 - Motz 15
 Borrockn Roll 0 - Los Heredia 2
 Foto Imagen 5 - Leya 1
 Kakajauri 3 - Potrosorri 2

B TALDEA

Fancy Bois 4 - Irati STS 7
 Diego Antonio 0 - Leintz Garagardotegia 3
 Bukanak 7 - Notxingan Florest 2
 Atxanta ke te merece 4 - Oole 5
 Argi Ibili 3 - Zuloak 1
 Alpen Krausser 3 - Ojo Avisore 5
 Arrasate Kirolak 5 - Monterrey Zubi Bel 1
 Betrayer 6 - Kopyprest 2
 Danok Lagun 1 - Ganbelas 0
 Excavaciones Lete 1 - Tronkoteak 3

D TALDEA

Kriskibalda 4 - Laso Arregi 5
 Franciscanerr 7 - Maccabi de Levantar 2
 Elisabeth 3 - Revolution Rock 7
 Bodisca 1 - Tovarixt 4
 Iluna Taberna 0 - Zulus 20
 AC Surcos 12 - Solano 7 Mares 3
 Nuevo Taberna 1 - Potroak Lorategi 7
 Carbueros 2 - Los Dimy 0
 Gure Leku 1 - Tuttifrutu 5

◆ **Emaitzak galdu.**

Emaitzak batu eta sailkapenak moldatzeko zailtasunak izan dituzte antolatzaileek aste honetan. Larunbatean, Iturripen egon zen antolakuntzako partaideak bertan utzi omen zituen egun hartako emaitzak eta lau baloi, baina biharamunean emaitzak galduta zeuden eta baloi bat ere falta zen. Ipotxak izango ziren akaso.

◆ **Krosean ere bai.**

Ezkinako Hontzak taldekoek koadrila gisa parte hartu zuten joan den asteburuko Santamasetako koadrilen krosean. Emaitza ezin okerragoa izan: azkenak geratu ziren.

URRIN EDARITEGIA

Etxeko janari bereziak

Urizarri Etorbidea. 22

Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE



Zurgin Kanto, 2
 Tfnoa: 79 20 04
 ARRASATE

Autokarabanak alokatzen dira!
METS
 T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezko piezak eta osagarriak.



IRAKURLEAREN TXOKOA

Kamiseta berdintsuak

Zaldibar lehiaketa antolatzaileei: Lehiaketa honetan parte hartzen dudan jokalaria bat naiz, eta ikusi dudanagatik, argi eta garbi dago kamisetengatik arazo asko sortzen direla, bi taldeetakoak berdinak edo kolore antzekoak direnean:

— Jolasten ari zarenean, ez dituzu zure taldekideak bereizten.

— Arbitratzerako orduan berdin gertatzen da, eta ez dakizu zeintzuk diren talde batekoak eta bestekoak, eta arrazoi honegatik kriston "satsak" egoten dira partiduetan.

Honekin gauza bat proposatzea nahi nuke:

— Hiru jolastokietan *peto* deitzen zaion kamiseta modukoak egotea. Uste dut bat baino gehiago nerekin ados egingo dela eta lehiaketarako hobeto izango dela.

Zerbait egingo delakoan, agur t'erdi.

JOKALARI BAT

Oharra: datozen bi asteburuetan ez da partidurik izango. Urtarrileko lehen asteburuan itzuliko da konpetizioa Zaldibarrera, ordura arte, Urte berri on!



Markagailuari buelta, inpugnazioa dela medio

Bi puntu kenduta zigortu dituzten bi taldeen (Iluna Taberna eta Fancy Bois) auziaz gain, partidu baten inpugnazioa izan da asteburu honetako gorabehera nagusia.

Ganbelas taldea izan da protagonista. Jokatu behar zutenean, lau jokalaria bakarrik zeuden kantxan, eta jokatze bost behar direnez, txapelketatik kanpo geratzeko arriskuan zeuden. Hori ikusirik, bertan zegoen beren koadrilako bat, MZK Ganbelas taldekoa eta antolakuntzakoa, taldean integratu zen, eta hala jokatuko zutela ados geratu omen ziren kontrarioekin, Danok Lagun taldekoekin. Bitartean, gainera, Ganbelaseko jokalaria gehiago azaldu

ziren, eta azkenean zortzi jokalarirekin jokatu zuten.

Partidua Ganbelasen aldeko 6-2 emaitzaz amaitu zen; baina ondoren, Danok Lagun-ekoek inpugnatu egin zuten, Ganbelastarrek diotenez, aurretik adostutakoa hautsiz. Azkenean, antolatzaileek aztertu dute kasua eta inpugnazioa onartu egin dute.

Ondorioz, emaitza ofizial gisa Danok lagun 1 - Ganbelas geratu da. Gainera, ohar serioa egin dute antolatzaileek, zorrotasunez erabakiko dutela eta ez direla horrelako arauz-kanpoko alineazioak onartuko aurrerantzean, ezta talde baten gutxieneko jokalaria kopurua betetzeko denean ere.



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



ARIANE

Emakume-
gizonezkoentzat
barruko
jantziak



Erdiko kale, 14 ARRASATE Tfnoa: 79 27 33

BENGOA

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

Zerkaosteta, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 28 85

DUO DISEÑO



- **OBRAK**
- **BARRUAK**
- **BULEGO-ALTZARIAK**
- **PROIEKTUAK**
- **OSAGARRIAK**

Iturriotz, 21 ARRASATE Tfnoa: 79 28 86

● *Mirentxu Goñi*

Gabonetako egia eta mitoak

40 urtetik gora darama ikertzen Mirentxu Goñi etnologoak. Barandiaranekin ikasi zuen Tolosan jaio baina Bergaran bizi den emakume honek, eta lankide gisa Jose Letona arrasatearra ere izan zuen. Etniker elkarteko Gipuzkoako sekzioko burua da.

— Nola batzen dituzue datu etnografikoak?

— On Jose Migelen eskola ikerketa egitea da. Zangoak nekatu lehenengo, eta gero burua. Esan nahi du joan behar dugula eta ahoz aho hartu behar dugula, galdetu eta jaso behar ditugula testigantzak. Liburuak irakurri eta ikasi behar dira, baina gure ikerketa herriz herri egiten dugu. Guk bakarrik hiruzpalau belaunaldi hartzen ditugu, eta hori da fidagarria guretzat. Eta askotan uste dugu gure gauzak, hemen jasotzen ditugunak, hemengoak bakarrik direla eta ez da egia. Gauza asko Europan zehar egiten dira, beste herrialde batzuek ere badauzkate. On Jose Migelek beti esaten zuen: guk jaso, gero interpretazioak egingo dituzte, baina guk jaso, ez dadila galdu, eta gureak diren edo ez diren, ba hemen daude eta gureak izango dira. Beste batzuenak direla? Bali-teke, ezin dugu esan bakar-

bakarrik gureak direnik.

— Euskal Gabonetan zer jaten zen tradizioz?

— Orduan Gabonak, uste dut, hemen nahiko apalak ziren. Turroia oso berandu sartu zen hemen. Hori baino lehenago, intxaur-saltsa zen, eta oraindik egiten da, ez dakit Arrasaten baina Bergaran bai, eta kaleko jendeak egiten du. Gero aza-olioa, eta bakailaua, eta beranduago koliflorra olioarekin; txitxarrua edo bixigua; konpota, sagar-erreak edo intxaur-saltsa. Beranduago turroia, eta orain, denok dakizue, mariskoa edo bakoitzak ahal duena.

— Ohitura bereziren bat nabarmenduko zenuke?

— Ogi salutadorea Gabon Gaueko ogi bedeinkatua da. 1922an edo jasoa zegoen ohitura hori, mende honen lehenbizikoetan jaso zuten, eta 1988an ere jaso dugu, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban ere bai. Gabon gauean, gizonetatik zaharrenak, aitak normalean, ogia hartu eta labanarekin gurutzea egin azpikaldetik, lehenbiziko koskorra kendu eta mantel azpian sartzen zuen. Afaria bukatu ondoren, etxeoandarearen komoda edo kajoiren batean gordetzen zen, hurrengo urtera arte. Zertarako? Zer zeukan ogi



horrek? Ekaitza urruntzeko adibidez, baita arrabiaren kontra ere, eta etxeko inork gaitzik ez izateko. Ogi hori ez dela lizuntzen esaten dute. Hurrengo urtean ateratzen da, eta ganaduari ematen zaio jateko, edo baita aitak ardotan sartu, bigundu eta jan. Oso ohitura polita da hori.

— Hemen atzo goizerarte hiperkatolikoak izan gara, eta orde, etnologian atzean beti halako paganismo bat balego bezala hitz egiten duzue?

— Paganismo hori badago askotan, bai. San Juan suan bai, adibidez. Paganoek suak egiten zizkioten jainkoei eta gero, kristautasuna etorri zenean, hartu zuten eta San Juan bezperan jarri zuten su hori. Badago halako sustrato bat, baina hori apaizek jakingo

dute hobeto.

— Nafarroako bazterren batean haren berri zutela eta, Olentzero euskal ohituratzat hartzerik badago?

— Ikerketak badaude horretaz. Mende honen lehenbizikoetan Olentzero zera zen, sorginak bezala, zeozer. Olentzero hori omen zen zatarra, begi-gorria, aurpegi-iluna, ikatzez beltzitua, hala diote Berastegin. Beste nonbait, andrea zuela. Beste nonbait, jale eta edale beldurgarria zela, Gabon Gauean jaisten zela. Tximiniatik behera jaisten zen, eta tximiniek garbi egon behar zuten; zikinak bazeuden, etxeko guztiei lepoa moztzen zien, esaten zuten. Gero, beranduago, denok ezagutu dugu Olentzero: gizon jantzita, txapelarekin eta. Zer egin dugu orduan? ezaguri haiek bihurtu ditugu gauza konkretu eta ukitzeko batean. Buelta eman diogu istorioari, eta kanta asko daude. Zer izango zen? Hor dago jaso duguna, hala zela, guk orain muñeko bat egin dugu.

● **“Hemengo Gabonak nahiko apalak izaten ziren sasoi batean. Turroia oso berandu sartu zen hemen.”**

Ahoa gozatzeko

Etxe bakoitzak bere ohitura, baina kultura bakoitzak ere bai berea. Sukaldari ezagun baten errezeta preziatuak eta Arrasateko kultur zentru ezberdinetako ordezkarienak jaso ditugu, egun hauetan aprobak egin nahi dituenarentzat.

Arantzazu Loidi

Obduli Ansoategi

Obduli Ansoategi ezaguna da adin batetik gorako mondrauetarren artean, inor ezagunik bada; ez da alperrik izan soziedadetako sukaldari ofiziala, sukaldarien irakasle, eta etxeetarako janarik prestatzen urtetan ibilia. 50 urte egin ditu Obdulik sukaldean, eta urte guzti horietan jendeak gehien estimatu izan dizkion eta gehien egin izan dituen plater biren errezetak eman dizkigu, berez gabon jaietan euskal sukaldaritzan berezko direnak izan ez arren. Egun hauetako errezeta tipikoak askotan irakurri eta entzun ahal izan ditugu beste-la ere. Jai egun hauetan, edo denbora libre hartutakoan gure irakurleak aproba egin dezan dakartzagu orrialde hauetara.

LEGATZ-MEDAILOIAK

6 lagunentzat, kilo bat legatz, zati zabalenekoa. Tamainu bereko xerra edo atalak egiten dira, azala eta hezurrak kenduta. Bi atalen barruan errelleno hau jartzen da:

50 gr. mantekilari ganba edo langostino eta legatz zatiu ba-

tzuk bota, masa sendo samarra eta ondo egina lortu arte sutan edukiz. Sutatik kendu eta gorringoren bat bota, kolorea emateko, eta gatzean probatu. Masa horretatik koilarakada bat jarri legatz zati bakoitzari eta beste batekin tapatu. Irinetan batu, medailoi itxura emanez, eta arrautzaz errebozatu, oliba olio beroa ugari duen zartakinan.

Saltsa: legatzaren ertzak, hezurak eta zati batzuekin salda egiten da. Kipula, perrejila eta azenarioa bezalako barazkiak ere botatzen zaizkio.


100 gr. mantekilari 2 koilarakada irin nahastu eta gero salda gehitu, dena gusto onekoa egon arte. Saltsa horrekin medailoiak estali eta gainean almejaka, langostinoak eta ganbak edo gura dena jarri. (Almeja txarrek plater guztia hondatu ez dezaten, zartakinan oliotan zabaldu eta ondo ez daudenak kendu).

UDALAITZ

Bizkotxo
250 gramo almendra
Bainilazko izozkia
karamelo

Bizkotxo bezperan eginda edukitzea komeni da. Bizkotxo hori zerradun kutxiloaz tira luzetan ebakita prestatu.

Ontzi baten karamelo egin: azukrea bota eta urez estalita sutan jarri. Koilararik eta ezer sartu barik, ontziari eragin karamelo egin arte. Almendrak osorik bertara bota eta karamelo



50 urtez sukaldean ibilitako emakume ezaguna da Obduli.

lotan estali ondoren ontzi batera atera hoztu arte. Ateratzen den "opil" hori xehe-xehe egin behar da. Orain tresna erosoagorik badagoen arren, bere garaietan Elmako errotatxoaz egiten zuela gogoratzen du Obdulik, eta aurrerapen handia zela.

Karamelo eta almendra xehetu hori mantekadu hotzarekin nahastu, masa bat egin arte.

Bizkotxo-atalak ontzi baten ipini, eta gainean izozkia jarri, Udalaizen forma emanez, pilan.

Mendi hori berriz bizkotxoarekin tapatu. 6 arrautzaren zuringoaz merengea egin eta gainetik behera bota mendiari, Udalaizen itxura har dezan.

Inguruetan fruta-mazedonia edo, mailukiak jartzen zaizkio, hartarako sasoia bada.

Postre honi Obdulik berak jarri zion izena. Bere errezetan artean beste izen asko daude, xelebreak ere bai batzuk, "Markes derrepente" esate baterako.



Loli Salguero (Galizia)

Arrasateko galiziarrek ohitura asko gogoratzen dute euren jaioterrian sasoi hone-tan izaten direnetaz, baina txerria hiltzearekin lotuta dau-den janariak aipatzen dituzte Gabon inguruko bezala.

Herri txikietan batez ere, Gabon gauean kanpaiak jo-tzen dira, eta herrixka edo eli-za ezberdinen artean nork denbora gehiagoz jo lehia egoten da. Natibitate goizal-dean mutil gazteak etxez etxe joaten dira batak bestea esna-tzera, eta aguardiente kopa edo "licor café" izenez eza-gutzen dutena edan ohi da goizeko ordu horretan.

"Gaueko trastadak" ize-nez ezagutzen dena ere fama-tu da: Kuadrila batek gurdiak osten ditu gauez, eta herriko plazan pilatzen. Hurrengo egunean bakoitzak bere gur-diaren bila joan behar izaten du.

Hona hemen Galizian oso tipiko diren plater bat eta eda-ri baten errezeta:

FILLOAS

Txerriaren odola, esnea, bi arrautza batitu eta hirina nahas-tu, masa fin bat geratu arte.

Sartakin baten txerri-koipea jarri eta beroa dagoenean kre-peak egiten diren bezala tortila-

txo batzuk egin. Azukrea edo ez-tia botatzen zaie eta txurroa egin arte kiribildu.

KAFE-LIKOREA

Galizian asko edaten den edaria da. Etxean egiten dute, hemen patxarana egin ohi den bezala. Kafea egin eta orujoare-kin nahasten da. Azukrea bota eta maribainutan eduki.

Gero 8-15 egunetan egoten utzi, eta edateko moduan da berehala.



Ana Maria Valor (Corazón de Encina)



INDIOILAR EDO PABOA

Indioilarra garbi eta hutsik dagoela, betegarria prestatzen da: urdaiazpikoa, urdaia, arrau-tza egosia, limoi atalak eta ma-hats-pasak.

Indioilarra gainetik txerri koipez igurtzi, goian esandako nahasketa hori barruan sartu, eta lapiko baten oliba oliotan doratzen jarri, Extremadurako ardoa gainetik botata. Ontzira bertara kipula, berakatza, azenarioa eta mahaspasak gehitu, eta intxaurre muskada apur ere bota.

Atera eta erratilu baten ipini haragia. Ontziko barazkiekin sal-tsa egin eta gainetik bota, pase-kin batera.

Apaintzeko: patata egosia eta urdaiazpiko zatiak nahastuta egindako masarekin bolatxoak egin eta fritoak balira bezala irin eta arrautzatan frijiturik erratilu-aren ertzetan ipini. Pinoiak ere bota ohi zaizkio.

ALMENDRA-ZOPA

Besterik badirudi ere, pos-trea da. Ogi xerra meheak egin, oliotan frijitu eta ontzian jarri. Al-mendra xehea esnetan jarri azukre apur batekin.

Ogi-erroeta kapa baten gai-nean almendraz egindako ma-saren kapa bat bota. Gainean berriz ogia, eta horrela nahi adi-na, baina azkena almendrazkoa izan dadila. Labean sartu. Azukre edo kanela-hautsa bota gaine-tik. Apaintzeko konfiteak edo beste zerbait jartzten zaio.



Maribel Guerrero (Al Andalus)

Andaluzian, kostaldean arraina eta mariskoa da Ga-bonetan ohiturarik handiene-koa. Mendi aldean berriz, txer-ria hiltzeko sasoi bete-a izat-en delako, txerriak eta in-dioilarra ohizkoago dira. Arrainarekin batera jateko, entsalada hau prestatu ohi dute:


Tomatea, kipula, piper berdea eta ganbak, dena oso zati txikietan jarri eta nahas-tu, arrainaren lagun jateko.

PRESTIÑO-AK EZTIAZ

Kilo bat irin, litro laurden olio, ardo zuri arrunta, laranja baten zumoa, limoi azala, anis aleak, kanela-hauts apur bat, ajonjolia eta litro bat ezti.

Ontzi baten jarri irina, kane-la, limoiaren azala birrinduta, eta anisa maspilduta. Olio berotu eta irinetara bota apurka, zurezko goilareaz eraginez, dena ilun samar geratu arte. Ardoa bota eta eskuekin nahastu, eta lehor-tzen denean gauza bera laranja-urarekin. Lortutako masa biguna zapi batekin estali eta orduerdiz utzi leku epel baten.

Gero masa pusketak hartu eta rodilloa pasa fin-fin utzi arte; lazo itxura eman eta olio bero-berotan frijitu. Ezti berotan sartu-atera egin eta ajonjoli tostatu bota.



Herri guztietan ere asko aldatu da Gabon jaietako otordua egiteko modua.



46 xakelarik jokatu zuten txapelketa honetan Musakolan.

Santamasesen inguruan kirol ekitaldi ugari izan zen

Santamas jaien inguruan kirol ekitza ugari izan ziren joan den asteburuan: Santamasetako pilota txapelketa, koadrilen krosa, trial-sin erakustaldia, edo xake txapelketa.

Lehenbizi hasi zena Arrasateko V. xake opena izan zen. Musakolako kiroldegian 46 jokalarik bildu ziren, horien artean maisu internazional pare bat ere bai. Txapelketa hau San Andres xake elkarteak urtero antolatzen duen konpetizio garrantzitsuena da.

Irabazlea, Jesus Mari Calvo nazioarteko maisu errenteriarra izan zen, Fernando Ortegaren aurretik. Lehen arrasatearra (16.) Jose Manuel Hernando izan zen,

San Andres xake elkartekoa.

Pilota txapelketari dagokionez, herriko pilotari gazteentzako saria izan ohi da Santamasetakoa. Igandean jokatu ziren finalak Iturripen, eta hauek izan ziren final horietako emaitzak: alebinetan, Ormaetxea-Esparza 18, Jauregi-Etxeandia 17; infantiletan, Mancebo-Pildain 18, Belategi-Agirre 14; kadeteetan, Lizarralde-Rubia 22, Murgoitio-Pozo 12, eta jubeniletan, Zugasti-Uribarren 22, Osinaga-Errasti 16. Aipa liteke infantiletako finalistetako bat neskato bat izan zela: Amaia Agirre.

Koadrilen arteko krossari dagokionez, 170 lagunek hartu zuten parte igandeko lasterketan. 95 izan ziren

haurrentzako frogetan, eta 75 koadrilen artekoan. Irabazleak hauek izan ziren gazte-txotetan: Oliver Fernandez eta Rosi Andrasede (13-14 urte); Josu Sanchez eta Alanze Ruiz de Munain (11-12 urte); Iker Lazpiur eta Leire Ayani (10 urte); Jon Loiti eta Ainhoa Eraña (9 urte); Josu Galan eta Idurre Garcia (8 urte), eta Oier Bernar eta Saio Gonzalez (7 urte).

Koadrilen frogak, korralkalarien postuak neurtzen ziren eta horrela geratu ziren sailkatuta lehen sei koadrilak: Zigarrola, Centro Extremeño, Basilio Taberna, Ciclos Lopez, Saioa eta Ezkinako Hontzak. Irabazle indibiduala Zigarrolako Jose Ramon Petreñas izan zen.

LABURRAK

Mendiko federatu txartelak

Besaide mendizale elkarteak mendizale federakundeko eta negu kiroletarako federatu txartelak tramitatzen ditu, urtero bezala. Txartel horiekin aseguru lortzen dute mendizaleek. Eskia egiteko, 4.500 PTAkoa da txartelaren prezioa. Mendiko federatuentzat, estaturako estaldura 5.180 PTA dira, Europarako 7.930 PTA eta mundu osorako 15.180 PTA. Beste gehigarri batzuk ere ordaindu behar dira eski alpinoa egiteko (beste 1.500 PTA), mendiko txirindulartzarako (2.500 PTA) eta 7.000 metrotik gorako espedizioetarako (35.000 PTA).

Federazio Kopa

Ostiral honetan jokatzekoa du Mondrak Amurrioren aurkako Federazio Kopako kanporaketa. Partidu bakarrera da eta Gasteizko Mendizorroztan jokutzen da, zelai neutralean. Aipagarria da Amurriotik Arabako Diputazioak autobusak doan jarri dituela eta 600 bat zaletu arabar izango direla bertan. Gipuzkoako Diputazioak ez du ezer jartzen. Federazio Kopa 2.B mailako onenen arteko lehiaketa da. Kanporaketa hau gaindituz gero, Estatu mailako taldeekin izango dira hurrengoak.

OLARTE, 13

soinu ekipoak - musika tresnak

PENALTIAK

● **Asteartean hasi zen jokatzeko koadrilen arteko Gabonetako 7. saskibaloitxapelketa. 20 taldek eman dute izena eta hiru grupotan banatu dituzte. Soñua-Seventy-Tristes (iazko txapeldu-nak), Zelaitxos eta Eya Sukaldeak.**

● **Azpeitiko haurrentzako Kimura judo-klube-ko txapelketan, 7 judoka arrasatearrek paper bikaina bete zuten, beste 14 klubetako neska-mutikoen aurka burrukan. 7 domina ekarri zituzten etxera, horietariko hiru urrezkoak, bat Karlos Rodriguezek eta bi Jonatan Ruizek.**

Ikastaro bi, kirola eta euskara uztartzeko

Deba Garaiko udalek euskara kirol munduan sustatzeko plangintzan dihardute. Ekimen horren azken adibideak antolatu dituzten bi ikastaroak dira. Herrialde mailako txirrindularitza-zuzendari ikastaroa da bata, eta eskola-kirol monitoreentzako ikastaroa bestea.

Monitoreen kurtsoa Musakola kiroldegian emango dute bi egunez, abenduaren 27an eta 28an. Dohainik da matrikula eta gai hauek jorratuko dituzte: anatomia eta kirol lesioak, jokoak, didaktika,



Txirrindularitza modalitate guztiak ukituko dituzte.

prestakuntza fisikoa eta psikologia. Txirrindularien kirol zuzendaria izateko ikastaroa Bergaran emango dute, urtarilaren 15, 22 eta 29an. Txirrindularitzako prestakuntza-

rako hainbat alor tratatuko dituzte ikastaro horretan: taktikatik hasi eta mekanikaraino, entrenamenduetatik pasatuta. Izen emateak, urtarilaren 11 arte daude irekita.



Loramendi Kirolak-eko kadeteak

Klub nagusien oinarrizko taldeek ere merezi dute arreta, eta Loramendi Kirolak da horietako bat. Kadete mailako saskibaloitalde hau, polito ari da jokatzeko Gipuzkoako ligan; asteburuan 73-20 irabazi zioten Ostadarri eta 6. doaz taulan. Aitor Urzelaik entrenatzen du Loramendi Kirolak taldea, eta 14-15 urteko 12 jokalaririk dira. Horietako bat, Roberto Gutierrez, Gipuzkoako selekzioan dago, eta talde horrekin asteburu honetan bertan 94-44 irabazi zioten Iparraldeari, eta 82-68 galdu zuten Bizkaiarekin.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 0 - Gernika 0
Emakumezkoak: Urretxu 0 - Mondra 4
2. regionala: Mondra 3 - Segura 4

Saskibaloia

2. maila: La Salle Deusto 77 - Arrasate 75
Sub-23: Politecnico A 88 - Arrasate 56

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Arrasate 7 - Unibertsitarios 10
Jubenilak: Arrasate 0 - Eibar 7

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Urola 23 - Arrasate 26
2. eskualdekoa: Leitzaran 17 - Arrasate 21



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
**AXULEI ETA ZORUEN
ERAKUSKETA
ETA SALMENTA**

Uribarri Etorbidea, 22 B ARRASATE Tfnoak: 79 81 80 / 77 09 59

IBAI-ARTEK
 Pozez beteriko
 jai zoriontsuak
 opa dizkizue
 arrasatear guztioi



Arrasate Erdialdeko Merkatal Zerbitzuen Elkarte

FAGOR




TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
 ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

UDALAITZ TABERNA

Jai zoriontsuak izan!

Erdiko kale, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 20 61



**AMAGARA
 ESTETIKA
 ZENTROA**

Erdiko kale, 54 etxabea
 ARRASATE Tfnoa: 79 09 09

.....
**ELEKTRONIKA
 ARTIKULUEN
 SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

BURGALES JATETXEA


Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
 ARETXABAETA**


Aste honetako ARRASATE Pressen azala egiteko, artista mordo baten kolaborazioa izan dugu. San Viator txikiko haurrei eskatu ge-

nien Gabonetako marrazki batzuk egin zitzatela, eta ez dugu lan gutxi eduki bat aukeratzen. Muestra txiki bat daukazue hemen (bes-

te marrazki mordo bat ezin dugu erakutsi). Eskerrik asko denei, eta guri opatu diguzuen bezala, zuei ere zorionak!



Alazne




Aitor Arregi



Yanet G.




Veronica Darvilas



Enaitz Etxeberria



Maria



Ibai Irastorza



Aritz Ancin



Marta

● *Ainhoa Arteta*

“Oraindik ez dut arrakasta hau asumitu”

Ainhoa Arteta oso ederra da, baina ez bere aho-tsa beste. Amaia Antzokiko eserleku batean eserita, ez da nabarmen-tzen. Ezenatokira igo eta ahoa zabaltzen duenean bakarrik erakusten du bere izena. Sekula ez du bere ur botila uzten eta beti aire-korronteak ebittatzen ibiltzen da.

— Italian 4 urtez eta EE.BBtan 5 urtez egon zinen ikasten. Ikasketak aurrera atera ahal izateko era guztietako lanak egin behar izan zenituen: umeak zaindu, egunkariak saldu... Zelako urteak izan ziren haiek?

— Gertatzen dena zera da: oso karrera garestia eta gogorra dela, eta bekak minimoak izaten dira eta ezer gutxirako ematen dute. Orduan jende guztiak egiten duena egin nuen nik ere: jende asko dago bere ikasketa unibertsitariak ordaindu ahal izateko lan egin behar izaten duena, umeak zainduz, tabernetan kamarero lana eginez... eta gauza bera gertatu zitzaidan niri. Ez nago bat ere damutu-ta, lan horiek oso gustora egin nituen, batez ere, zertarako egiten nituen nekielako, eta ez nintzen hain goibel jartzen, baina gogorrak izan ziren.

— Osperako saltoa aurrean eman dezula esan daiteke: Nueva Yorkeko Metropolitan House Opera eta Placido Domingo Sariketa Internazionala irabazi dituzunetik. Nola asimilatzen da ospe hori, edo oraindik ez duzu asimilatu?

— Horixe esan behar nizan, oraindik ezin dudala sinestu ere egin. Gainera, duela gutxi, Zeta Taldeko “93ko onenak” saria ere eman didate. Gutxinaka gutxinaka konturaratzen ari naiz honetaz, baina nik pertsona bera izaten jarraitzen dut, nire inguruko jendea da aldatzen ari dena, beste galaxia batetako pertsona bezala ikusten naute. Askok kostatzen zait guzti hau barneratzea, jendeak nire inguruan egiten didan globo hori nahiko desatsegina da.

— **Pertsonalki, zer kantatzea gustatzen zaizu gehien?**

— Niri ondo ateratzen zaidan guztia kantatzea gustatzen zait, jakina, baina beno, errepertorio italiarra aipatuko nuke nik, Verdi adibidez. Dena dela, autoreen araberako gauza da hori; orain, adibidez, Bach kantatzera noa eta oso gustoko dut. Kantatzen ari naizen momentuaren araberako gauza da hori.

— **Zure familian ere musikaren sustraiak aurkitu daitezke**

Bai, aita Tolosako abesbatzeko zuzendaria izan zen, eta orain Lekeitioko Koruko zuzendaria da. Gure etxean betidanik egon da musikarekiko zaletasun handia.

— **Ezenategira irten baino lehenagoko minutuak zelakoak izaten dira?**

— Niretzako nahiko lasaiak izaten dira. Urduriago egoten naiz aktuazioa baino lehenagoko egunetan, baina aktuazio egunean kontzentra-



tzen saiatzen naiz; kontzentrazioa, norbere buruarekin lasai egotean datza, horretarako siesta on bat egiten dut lehenago eta siestaren azken momentuarekin geratzen naiz, beraz, oso erlajatuta iritetzen dut ezenatokira.

— **Denbora guztian aire-korronteak ebittatzen ari zarela konturatu naiz. Nola zaintzen duzu eztarria?**

— Zuk esan bezela, aire-korronte hotzak ebittatzen ditut, baita kea ere, eta gutxi hitzegiten saiatzen naiz... entrebista gutxi egiten saitzen naiz, baina niri hori ezinezkoa zait.

— **Noiztik bizi zara EE.BBtan?**

— Duela 5 urtetatik. Egia esan, EE.BBtan oso irakas-kuntza eta musika eskeintza handia dago, beraz, han egotea gustatzen zait, musika egiteko eta musika ikasteko.

— **Jende guztiak galdetuko dizu ea zure edertasunak eta gaztetasunak arrakasta lortzen lagundu dizun. Zer erantzuten diozu horri?**

— Noski, fisiko on bat eukitzea ona da, baina oso polita izanik, ezenatokira igo eta ahoa zabaltzen duzunean txarto abesten baduzu, ez duzu zereginik. Horrek ez du funtzionatzen.

— **Hemendik nora zoaz?**

— Urte bukaerarako Munichera noa, Placido Domingorekin batera Gabon Zaharreko kontzertua emango dut. Urtarrilaren Sean Errege Gala egingo dut eta Placido Domingorekin grabaketa batzuk egingo ditut ondoren. Horren ondoren Seattle Operara noa, gero Alemaniara... oso lanpetuta nago!

— **Ez duzu familiarreko bizitza faltan botatzen?**

Askok, asko baino gehiago. Baina horretan ez pentsatzen ahalegintzen naiz, bestela oso triste jartzen naiz eta, galtzen ari naizen gauzetaz ohartzen naiz. Baina ez dakit zer duen musikak; droga edo antzeko zerbait da eta nire kasuan, musikak, hain sentimendu tristeak gainditu egin ditzakeela konturatu naiz.

● *Ane Miren Axpe*

Stradivariusaren andereñoa

Zazpi urte zituela hartu zuen lehenengo aldiz bibolin bat esku artean. Musikarako kualitate bereziak zituela ikusi zutenean, erabaki gogor bat hartu behar izan zuten bere gurasoek: 13 urterekin Parisa joan zen ikastera. Juanito Arzamendiren omenaldian joko du.

— Bibolina lehen aldiz hartu zenuenetik orainarteko bi-dea, zein izan da?

— Amak Arrasate Musikalen apuntatu ninduen 7 urte nituela. Eskolara bibolin irakasle poloniar berri bat etorri zen, Cristoph Blezien, eta harekin hasi ginen zenbait ikasle bibolin ikasketak eta solfeo ikasketak batera egiten. Gero Cristina Minguez, beste bibolin irakasle bat etorri zen eta harekin jarraitu nuen ikasten 13 urte bete arte. Madrilen bibolin ikasketak egin ahal izateko beka bat zegoenez, Parisera Eduard Bulson irakaslearekin beka prestatzera joateko izan zidaten. Parisen gustora sentitu nintzen eta azkenean ez nintzen Madrileko beka hartara aurkeztu. Oso urte gogorrak izan ziren haiek, pentsa: 13 urtekin Parisa!

— Azaldu nolakoa den egun normal bat Parisen.

— Ez du ezer berezirik.

Beste edozein gazte bezela, ni ere lizeora joaten naiz. Orain BUPeko 3. mailan nago eta selektibitatea egin arte egongo naiz bertan. Goizeko zortzi t'erdietan hasi eta arratsaldeko lauak arte bertan egoten naiz. Gero, egunaren arabera, edo bibolineko klase partikularretara joaten naiz, Eduard Bulsonen etxera, edo bestela nire aldetik ikasten dut. Dena dela, egunero jo behar izaten dut bibolina, 3 orduz gutxi-gorabehera.

— Parisen bizi izatea ez zaizu gogorra egiten?

— Monja-erresidentzia batean nago, erresidentzia espainiar batean. Bertako ikasle guztiak estatukoak dira, frantsesa ikastera joan diren gazteak dira. Gustora nago.

— Selektibitatea egin eta gero, zeintzu dira zure asmoak etorkizunerako?

— Argi dago selektibitate ostean, bibolinari dedikatuko diodala nire denbora guztia. Selektibitatea bukatzen dudanean, "paper" guztiak jarriko ditut ordenean, izan ere nik bibolineko 4. mailarteko azterketak bakarrik dauzkat eginak eta 10 urte direla kontutan izanik, gainontzeko maila guztietako azterketak egitea falta zait. Soberan dakigu horiek gaindi ditzakedala, baina paper guztiak jarri behar ditugu ordenean.

● **"Herriari zerbait zor diodan sentrazioa dut eta gustora joko dut."**



— Eta guzti horren ondoren, zertan lan egitea gustatuko litzaizuke?

— Oso goiz da horretan pentsatzen hasteko, baina orkestaren baten jotzen hastea gustatuko litzaidake, horrela esperientzia hartzeko, kamarako musika jotzea ere gustatuko litzaidake. Dena dela, benetan gustatuko litzaidakena, bakarka jotzea izango litzateke. 30 urtekin edo, musika irakasle izatea ere gustatuko litzaidake.

— Gerta daiteke noizbait bibolina uztea?

— Besoa apurtu beharko nuke ez jarraitzeko! Jakina, bizitza osoa ematen baduzu bibolina ikasten, derrigorrez bukatuko duzu horrekin erlacionatutako lan bat egiten, ez dakit nongo akademia ezezagun batetako irakasle moduan bada ere. Dena dela, nire asmoa ez da jendearen aurrean ondo geratzea, nire buruarekin gustora egotea baizik. Bizitza gogorra izango dela badakit, sekula ez dut oporrik... adibidez, orain, aben-

duaren 24 eta 25ean entsaioak egin behar ditut.


— Horren bibolinista ona izateko, zer daukazu zuk besteek ez daukatenik?

— Musikalitatea, horixe da nik omen daukadan abantaila. Musika oso ondo esprestatzen dudala esaten didate, sentimendu handiz. Nire irakasleak esaten dit musika obra hartu bezain laster, obra horretako autoreak espresatu nahi izan zuena espresatzen dudala.

— Zer esan nahi du zuretzat Juanito Arzamendiren omenaldian jotzeak?

— Oso urduri nago, herrian serioski jotzen dudana lehen aldia da hau. Juanito Arzamendi txikitatik ezagutu dut, oraindik gogoan dut akademiara sartu ahal izateko egin zidan froga: eskala bat bestu behar izan nuen eta nik ez nuen ideiarik ere. Herriari zerbait zor diodan sentrazioa dut, eta oso gustora joko dut, baina esan bezala, oso urduri nago.

Hipoteka
Berria


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Orain %8,75eraino*

*Interes nominala (U.T.B.
%9,11 komisiok barne ez
daudelarik). 25 urterainoko
epea. Interes finkoa
aurreneko 2 urteetan.
Gainerakoetan, CECA
erreferentziari puntu bat
kenduz. %1eko irekiera-
komisioa (Gutxienik 60.000
pta.). I.G.G. (G.E.G.): 35.000
pta. (Tasazioa barne).

Informa zaitez
900 555 900 zenbakian.



Z E R N A H I A G O ?

Olentzero

Ikazkina

- **Aurten zenbat ikatz kilo banatuko dituzu haurren artean?** Oso gutxi, inoiz baino hobeto portatu dira aurten.
- **Noiztik haurrei opariak banatzen?** Aspalditik, baina lehen erregeekin konpetentzia handiagoa zegoen.
- **Zer oparitu behar diozu ARKOri?** Ondo portatzen bada, lokal berri bat.
- **Eta herriari?** Lanpostuak ekartzen saiatuko naiz baina...
- **Inoiz egin duzu topo haurren batekin opariak uzten ari zinela?** Ez, guztiak egon izan dira lotan beti.
- **Haurrek aurten zer opari eskatu dizute gehien?** Nintendoak, dinosauroak eta patinak.
- **Zenbat gutun jasotzen dituzu urtero Euskal Herrian?** Milioika, baina ortografia akatsik gabe, bat ere ez.
- **Zer moduz Txoronpio?** Oso lanpetuta, azken erosketak egiten ari da.
- **Zer egiten duzu gau bakarrean Euskal Herriko etxe guztietara horrenbeste opari eraman ahal izateko?** Ni neu ere ez dakit baina aurretik entrenamentua egiten dut.
- **Zer moduzko urtea iruditu zaizu bukatzera doan hau?** Sekula baino gogorragoa.
- **Zer izaten duzu kontutan haur bati ikatza oparitzea erabakitzen duzunean?** Urtean zehar etxekolanak egin izan dituen, etxean ondo portatu den eta Eguberri gauean zapatilen ondoan zer edo zer jateko utzi didan ala ez.
- **Norekin ospatzen dituzu gabonak?** Txorontziarekin eta Anbotoko sorginarekin.
- **Zer oparitu behar diezu?** Txorontziari abarka batzuk eta Anbotoko sorginari erratz berri bat eta edari magiko batzuk.
- **Ba dituzu etsairik?** Bai, Papa Noelekin ez naiz batere ondo konpontzeri.



POEMA

Maitasunezko olerkiak (1)

Neska gazte, eder eta lirain;
zure begi, polit eta zoroak dira;
maitasunaren errelexu berbera.
Zure begirada goxoa:
beste irrifarre bat sortarazten dit.
Zure ile, luze eta laztandua aldiz:
baretasuna eta zintzotasuna
adierazten dit,
nahiz eta zure barnean,
seriotasunik ez agertu.
Zure maitasunaz beteriko bihotz
kuxkurra da,
nire bihotz maitemindua
puxkatu dezakeen bakarra.

GOTZON

Memesa

79 42 22

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuakUrIBE AUzoA
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

* 75P92U *

Olarte Kalea, 45
Tfnoa: 79 67 84

“Arrasate 93” sariketako irabazleak

Abenduak 21. Urtero bezala, AEDko sari banaketa egiteko eguna. Astear- tean, arratsaldeko 7etan izan zen ekitaldia eta lehiaketaren balorazio- aren berri eman ondoren, sari banaketari ekin zitzaion, jendez betetako aretoan.

Lehenengo eta behin, ipuin lehiaketako sariak banatu ziren. Modalitate hau izan zen partehartzaile gehien batu zuena; 95 hain zuzen. Gaztetxoan mailan, lehen saria Leire Lardizabalek eraman zuen, 20.000 PTA eta oparia. Mireia Olabe eta Itziar Larrañagak, akzesit bana jaso zuten. Gazteen mailan berriz, lehen saria Eider Zumaldek irabazi zuen, Amaia Alberdik eta Marta Gomezek, akzesit bana jaso zuztelarik. Helduen mailan, Ruben Beitiak lehen saria eraman zuen, 55.000 PTAkoa hain zuzen. 20.000 PTAko akzesita berriz, Diego Martiartuk.

Poesia modalitateko gaztetxoan mailan, Lorea Arantzetak jaso zuen lehen saria, akzesita berriz, Nuria Coscojuelak. Gazteen mailan, sari bakarria Larraitx Ugartek irabazi zuen eta helduen mailan, Jose Luis Goenagak eta Iñigo Iñurrategik aksezit bana ira-



Ruben Beitiak helduetan lehen saria eskuratu zuen.

bazi zuten. Modalitate honetan, 25 partehartzaileen lanak jaso ziren.

Bertso paperei dagokionez, gaztetxoan mailan, hau da, 14 urtetik beherakoan mailan, lehen saria, Ekhone Landak irabazi zuen, Ane Atxotegik eta Tamara Irizarrek berriz, 10.000 PTAko

akzesit bana jaso zuten. Gazteen mailan, Amaia Agiriano izan zen sari bakarria jaso zuen neska, 10.000 PTAko akzesita hain zuzen. Helduen mailan, lehen saria Danel Goikoleak irabazi zuen 55.000 PTA etxeratu. Asier Etxanizek eta Saioa Arandok berriz, akzesit bana jaso zuten. 19 pertsonen

aurkeztu zituzten bertsoak.

Komiki modalitatean, Aitor Lodosok eraman zuen lehen saria, akzesita berriz, Jon Alvarezek eta Jon Alberdik. 10 komiki jaso ziren guztira modalitate honetan.

Ikusentzutekoen modalitateari dagokionez, diapositiba modalitatean argazki multzorik onena aurkeztu zuen pertsona, Joseba Elortza izan zen eta 15.000 PTA etxeratu zituen. Diapositiba onenaren saria, berriz, Antonio Muri-llok irabazi zuen, 10.000 PTAko saria jasoz. Argazkiei dagokionez, multzorik oneneko saria, Karmelo Uribarrenek irabazi zuen, argazki onenaren saria berriz, Rosi Zarraoak, eta akzesita, Miren Edurne Elvirak eraman zuen. Hiru bideo besterik ez ziren aurkeztu bideo modalitateko sariketara eta lehen saria Maria Luisa eta Maria Victoria Cidek eskuratu zuten “Egurra eta narrua” izeneko lanarekin. 80.000 PTAko saria etxeratu zuten.

“Jugoslavia Ohiko aldaketak” gaitzat izanik, Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren lehiaketan, Joseba Ossak eraman zuen 100.000 PTAko akzesit berezia, Imanol Unzurrunzagak 50.000 PTAkoa eta Aintzine Mendizabalek 50.000 PTAkoa.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

MENDI Taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

Juanito Arzamendi

“Mezzo forte”

Datorren abenduaren 26an, Juanito Arzamendik ondo baino hobeto merezitako omenaldia jasoko du Amaia Antzokian. Ainhoa Artetak, Ane Miren Axpek eta Lituaniako Orkestrak zenbait obra eskainiko diote.

LEHENALDIA

Juanito Arzamendi Enparanzaren kurrikulumari begirada bat bota ezker, musika besterik ez da entzuten: Justo Munarriz jaunarekin, Arrasateko Udal-Bandako zuzendariarekin, hasi zituen bere musika ikasketak. Piano ikasketak Enrike Alvarez Zapatarekin, Valladolideko Kontserbatorioko Katedratikoarekin sakondu zituen. Armonia ikasketak ordea, Francisco Escudero jaunarekin burutu zituen. Egun, Juanito Arzamendi Estatuko Musika Banda Zibilen Zuzendarien Taldeko partaideetarikoa da.

1960an Arrasateko Udal Bandako zuzendari izendatu zuten, baina Udalaren erabakiz 1974ko maiatzean banda desagertu egin zen. Min handia eman zion erabaki horrek eta horregatik, Arrasate Musikaleko Orkestra sortzea erabaki zuen. Ordurako Arrasate Musikal Akademia sortua zegoen eta bertako hainbat ikaslerekin, 33 partaidetako orkestra eratu zuen 1975ean;



Herriko musikaren historian zer esan handia izan du Arzamendik.

1976ko San Juanetan eman zuten lehen kontzertua. Arrasate Musikalek ere, Arzamendi jaunari sor dio sorrera, 1972an fundatu zuen eta 8 irakasleren laguntzarekin.

ORAINA

Gaur egun Arrasatek duen eskaintza musikalaren parte handi bat gizon honi zor dio. Juanito Arzamendi, ikaslez osaturiko Euskal Herriko orkestra sortzaileen pionerotzat jo daiteke, Arrasate Musika-

leko Orkestra Euskal Herriko lehenengoa izan baitzen eta gure herrikoa ikusi eta gero Donostiako kontserbatoriokoa osatu zen.

Juanitok ez ditu omenaldiak gustoko, gehiegizkoak iruditzen zaizkio. Guzti hori baino umilago sentitzen da, baina pozik ageri da omenaldi honen aurrean. Arrasate Musikaleko Orkestrako partaide beteranoekin, Goikobalurekin eta Gorosarriekin osatutako despedidako kon-

tzertuak sekulako ilusioa egingo liokeela aitortzen du, berarekin batera ibilitakoak horiek dira eta; baina orain Ainhoa Arteta, Letoniako Orkestra eta Ane Miren Axperen bisitaz oso pozik dago Juanito, ez daki nola eskertu.

Duela urte bat jubilatu zen. Adinak eraman zuen erabaki horretara, eta nahiz eta min handia ekarri zion, garai hartan eta denboraldi bat lehena-gotik, sekula baino desmotivazio gehiago somatu zuen orkestran eta; asko sufritu zuen. Egoera hark behin betirako orkestra uztera eraman zuen. Orain, lehen ezinezkoak zitzaizkion hainbat gauza egiten ematen ditu egunak. Bizitza osoa musikari eman dion gizon batek sekula ez du hori alboratu; horregatik, inspiratuta sentitzen den bakoi-tzean, burura etortzen zaiona pentagrama batean idazten du. Noizbait motibo guzti hoiak batuko dituela eta konposizioaren bat sortuko duela dio. Bitartean, mendira joaten da, herri ezezagunak bisitatzen ditu, baina sekula ez da asper-tzen, eguna konturatu gabe bukatzen zaio. Gainera, bere seme-alabek testigua hartu diote; Beatrizek batuta eta Eduardok pianoa.


Amestutakoa lortu duenaren aurpegia du Juanitok. Ez da gutxiagotarako.



Pax Manceras
Bitxitegia

Iturriotz, 7 Bis. Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE






uanito Arzamendiren ome-
nezko jaialdia dagoen hone-
tan, bera Udal Bandako zu-
zendari izan zen garaiko erre-
tratuak hemen. 1960an hartu
zuen Juanitok bandaren zu-
zendaritza, eta 1974an Banda
hori bertan behera uztea era-
baki zen arte jarraitu zuen.
1963an zuzendari ofizial iza-
teko oposizioak atera behar
izan zituen. Hasieran banda
txikitxoak zen, eta gerora 44
lagun ere izan ziren eta
arrakasta handiko eta kritika
on askoko kontzertuak eman
zituzten herririk herri. 1964ko
abuztuan Donibane Loitzu-
nen emaniko kontzertuan atera
zuten erretratu hau: Goian,
bandaren estandarteaz, **Rufo
Aranbarri**, behean, **Jose
Luis Beitia**, **Jose Mari
Otxoa**, **Jose Hidalgo**, **Si-
món Etxebarria**, **Enrike
Morrás**, **Franzisko Mora-
les**, **Fernando Bermejo**,
Bernardo Garcia, **Jose
Luis Azkarate** eta **Adrian
Palacios**.

Jose Luis Bonilla, **Jose
Antonio Martin**, **Juan Lo-
pez de Bergara**, **Diego
Maestre**, **Ignazio de la
Cruz**, **Felix Mata**, **Domingo
Castro**, **Jose Felix Iñi-
guez**, **Julio Aristimuño**.

Lehenengo lerroan, **Al-**



1964an, Donibane Loitzunen.



1960ko pasakallea.

berto Amozarrain, **Rafael
Ortubai**, **Jose Angel Or-
tiz**, **Evaristo Celemin**,
Rafael Escudero, **Jazinto
Bergara**, **Juan Aranbarri**,
Jose Mena, **Juanito
Arzamendi** (zuzendaria),
Fermin Aranbarri, **Juan**

Morales, **Mariano Azka-
rate**, **Jose Mari Guridi** (zu-
zendari-ordea) eta **Carlos
Andres**.

Bigarren erretratuak
1960an Santa Zezilia egunean
egina da, lehen pasakailean.
Bandak domekero jotzen zuten

dantzaldia, eta hilean behin
kontzertua. Gerora, jendeak
plazan dantzan egiteari utzi
zionean, hilean birritan ematen
zuten kontzertua, kioskoan
bertan. Banda hau erabat
Udalak ordaindua zen, eta
musikoei soldata zeukaten.




Mondeo

M MUGARRI




Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.



NEREA



Gizonezko eta emakumezkoen lentzeria

Erdiko kale, 28

ARRASATE

Tfnoa: 79 13 43

Zorionak denoi!!



Jai hauetan Zure opariak LORAMENDIN



INTERSPORT®

Dena kirolerako

LORAMENDI KIROLAK



• AIPUA •

*Ikas ezazu betiko bizi
behar bazenu bezala:
bihar bil behar bazenu
bezala bizi.*

Insulis

• JEROGLIFIKOA •



Nondik zatoz?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8				9		
10			11			
12					13	
14			15		16	
17			18			
19				20		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Afalduta geroko denbora. 8. Epotxa. 9. Alfabetatza Euskalduntze Koordinakundea. 10. Arrasate Margo Taldea. 11. Gipuzkoan, 628m.ko mendia. 12. (Ald.) Zilbor. 13. ADRAko kontsonanteak. 14. Iluntze. 17. Silizioa. 18. Dardara. 19. Trebe. 20. Arrasateko punk talde ohia.

Bertikalak 1. Azterketa. 2. Sendi. 3. Agor. 4. Esnatu aurretik. 5. Lahar. 6. Denda duena. 7. (Ald.) Erretore. 11. (Ald.) Kabu. 15. (Ald.) Zangoaren beheko zatia. 16. Taberna.

• HOROSKOPOA •

Aries Aurtengo gabonetan ez jan turroi gehiegi, bestela ere sobran dituzu kiloak eta.

Taurus Aurtengo gabonetan jan turroia lasai, kiloak hartzeko beldur barik.

Gemini Datorren urtean zaharragoa izango zara; hala uste dut behintzat.

Cancer Nagi hutsa zara, zure jarrera aldatu beharko duzu.

Leo 93 ari agurra mozkorraz eta 94 ari ongietorria ere horrela egin behar diozula? Hori ez da jira!

Virgo Mutil bat konkistatu nahian bazabiltza, lehenengo muxuak ematen ikasi beharko duzu.

Libra Beno, ba... ez dago gaizki baina hobeto egin dezakezu.

Scorpio Interesante itxura duzu; baina, zoritxarrez, itxura besterik ez da.

Sagittarius Utz itzazu lelokeriak alde batera, lelo konpletoa bihurtu baino lehen.

Capricorn Ile mozketarekin ideiak joan zaizkizula dirudi. Zoratuta zaude, ala?

Aquarius Bertsolaritza ahaztu beharko duzu. Tontotzen ari zara eta gero eta ideia gutxiago duzu.

Piscis Ligatze kontuetan frakaso hutsa zara. Baietz mutlizahar geratu!

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

· MARI MAR LOPEZ DE IPIÑAREN GOMENDIOA ·



Mari Mar txiki txikitatik izan da musika-zalea, eta solfeo eta armonia ikasketak ere eginak ditu. Orain Aretxabale-tako musika eskolan ematen ditu eskolak; zaletasunen artean ere musika du, Eskoriatzako Gorosarri abesbatzan abesten du eta, soprano. Zuzeneko kontzertuak entzutea da bere gomendioa, edozein musika mota, baina aspaldian Arrasaten dagoen aukerarekin, musika sinfonikoa batez ere: "apur bat ulertzen duenak beti ikasten du zerbait, eta ulertzen ez duenak, disfrutatu egingo du".

· KOMIKIA ·



· PROGRAMAZIOA ·

TB

ARRASATE

26 Igandea

20.00etan
Astebete (errep.)
20.30etan
Mondragol.

27 Astelehena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Astakiloen abentura eta ka-
lenturak"

28 Asteartea

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35
"Astakiloen abentura eta ka-
lenturak" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Oliver Twist"

29 Asteazkena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Oliver Twist" errep.
20.00, 20.30, 21.00tan
Berriak
21.30etan
"Asterix eta Kleopatra"

30 Osteguna

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Asterix eta Kleopatra"
errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Urtebete" (programa berezia)
22.00etan
"Asterix eta 12 probak"

31 Ostirala

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Urtebete" errep.
14.05etan
"Asterix eta 12 probak"

· SOLUZIOAK ·

RUMBA TABERNA

GABON ZORIONTSUAK IZAN

Iturriotz kalea. ARRASATE

Debatik
JEROGIFIKOA
Pantoko. 11. Kasa. 15. Oin. 16. Bar.
Antzu. 45. Lo. 5. Nar. 6. Dendari. 7.
Bortikalak 1. Anali. 2. Familia. 3.
Iai. 20. RJP.
14. Ilunabar. 17. Si. 18. Ikara. 19.
10. AMT. 11. Arno. 12. Zil. 13. DR.
Horizontalak 1. Afalondo. 8. Nano.
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Gela bat bi oherekin** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Apartamentua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta kalefazioaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gauzez deitu. Luis.
- **Donostiako Gros auzoan** neska bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Tfnoa: 29 32 90.
- **Aretxabaletan bi logela** alokagai, sukalderako eskubideaz. Tfnoa: 79 04 62.
- **Laukalean, Roneoko etxeetan**, 16,5 m² garaje itxi bat alokatzen da. Lehenengo pisuan. Tfnoa: 79 18 95.
- **Lokal bat salgai**. 85 m². Elkano kalean, 4. Tfnoa: 79 19 99. Manuel Bouzon.
- **Etxebizitzan amueblatua salgai Bergaran**. Artekale, 16 -1º. Tfnoa: 76 12 81.
- **Familia batek logela bat eskaintzen du**. 2 ohe, eroso, ikasle edo langileentzako. Pentsio erdia edo osoa, aukeratzeko. Jose Luis Iñarra Pasealekua, 25 - Behea, B. Tfnoa: 77 06 87. Rosario.
- **Etxebizitza alokatzen da** guztiz amueblatua. Helbidea: Maalako Arrabala, 21 lehena. Tfnoa: 79 47 17. Deitu 8,00etatik aurrera.
- **Urbe auzoan garajea** eta traste-lekua salgai. Deitu 77 13 02 tfnora.
- **Suizako neska batek** logela bat alokatuko luke, lehen bait lehen. Urtarriletik ekainera. Tfnoa: 79 90 36. Rita
- **Garaje bat alokatzen da** Urbe auzoan. Tfnoa: 94-683 07 72.

Lana

- **Andre euskalduna etxeko** lanak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun neskek** etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke goizez. Tfnoa: 77 06 25. Deitu eguerdian eta gaueko 9,30etatik aurrera.
- **"Flauta trabes" jotzaileak** musika zein flautazko klaseak emango lituzke. Animatu! Tfnoa: 77 06 25. Miren. Deitu eguerdian eta gaueko 9.30etatik aurrera.
- **Unibertsitariak asteburuetan** OH.O.-ko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.
- **Gabonetako oporretan frantsesezko klase** partikularrak hartuko nituzke. Dei egin 79 99 82 tfnora. Miren.
- **Ingelesezko klase partikularrak** hartuko nituzke. Tfnoa: 71 41 14. (Hobeto natibo edo lizentziatua balitz).
- **Zure aulkia hondatuta baduzu**, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Dei egin 79 15 96 tfnora.
- **O.H.O.ko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Enpresa zientzietan lizentziatuak** O.H.O., U.B.I., B.B.B eta enpresa zientzietako klase partikularrak ematen ditu. Tfnoa: 79 16 19.
- **Esperientziadun neska, prest** dago etxeko edozein garbiketa, ume txiki edo/eta nagusiak zaintzeko. Harremanetarako dei egin 79 27 50 tfnora. Azuzena.

Salerosketak

- **Labadora salgai**. Egoera onean eta prezio interesagarria. Tfnoa: 79 22 86. (egun guztian zehar).
- **Salgai Bideo kamara** CCD-V 200 E SONY. 5 lux. Zoom 8x. Audiodubing. Titulazioa. Tfnoa: 79 71 57. Tomas.
- **Eskiatzeko botak salgai** (KOFLACH 850) Zortzi egunez erabiliak. 25.000 PTA. Tfnoa: 79 29 92. Asier.
- **Kotxe telegidatua** bat saltzen dut eta honekin batera, walkman bat oparizat. Tfnoa: 79 58 25. Javier Vargas.
- **Salgai:**
 - Aluminiozko porta-skiak GOLFau toarentzat 5.000 PTA.
 - Porta-txiringak. 6.500 PTA.
 - Gurpilentzako kateak. GOLF tipokoak. Juanjo Iza. Tfnoa: 79 52 45. 8,30etatik aurrera.
- **2 Levis urdin** estrenatu gabe salgai, New York-etik ekarriak. 29-32 neurriak. Prezio ezinhobea. Tfnoa: 79 24 97. Rakel.
- **Estufa japoniarra** saltzen da. 20.000 PTA. Tfnoa: 79 99 91.
- **Sofa, mahai, mezedora** eta zumitzezko jarlekua salgai. Batera edo banan banan. Tfnoa: 79 47 94.

Denetarik

- **Kotxe zaharra botatzera zoazela?** HIES Ekimena kotxe baten beharrean dago, beraz... Tfnoa: 79 26 99.

Aste Gazte

Bekak

• 94-95 ikasturtean Juan March Institutoko Giza Zientzietako Zentruan ikasle teko bekak. Ingelesa menperatzen duten goi mailako tituludun nahiz karrerako azken ikasturteko ikasleei zuzenduak. Dirulaguntza: hileko 120.000 PTA. Epea: otsailak 28.

Sexualitate tailerrak

• 23 urtetik gorako gazteei zuzenduak. Urtarriletik martxora bitartean. As-

teartetan, 6.30etatik 8.30etara. Monterronen. HIES Ekimena-Gazte Zerbitzuak elkarlanean antolatua.

Lehiaketak

- I. Antonio Maria Labaien. narrazio laburren lehiaketa. Sari bakarra 400.000 PTA. Epea: abenduak 30.
- Donostiako 29. Jazzaldia, kartel-lehiaketa. Lehen saria 100.000 PTA. Epea: otsailak 15.
- Amodiozko gutunen, II. Berrigara Lehiaketa. Lan guz-

tiek argitaragabeak eta euskeraz idatziak izan behar harko dute. Epea: urtarrilak 17.

- Bilbo Hiria POP-ROCK VI., lehiaketa. Taldeak berak egindako kanitez osoturiko errepertoriuma, edozein hizkuntzatan. Epea: urtarrilak 15.

"Gaztetasuna nobedadean dago eta ez urtetan"

KARMELO BERNAOLA (MUSIKARIA)



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Jose Branzabal



*Lure oparia Jose Branzabal-en duzu zain
Lorionak*


SONY



O P E L A S T R A

DENA DAUKA ZURE MUNDUAK.

HILABETE HONETAN
256.000 Pezeta
ARTERAINOKO BEHERAPENA*



OPEL ASTRA. ZURE AUTOA. ZURE MUNDUA.

*Stock-ean dauden autoentzako promozioa hilabete honetan.

OPEL

Z A I N G A U Z K A Z U

TALLERES **OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Zerbitzu Oficiala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPELEN KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.